



**GARAPENAREN NAHASTE OROKORTUAK DITUZTEN
IKASLEENTZAKO GELA EGONKORREN
FUNTZIONAMENDURAKO ORIENTABIDEAK**

**Curriculuma Eratzeko eta Euskal
Herriko Irakasleak Prestatzeko
Institutua (CEI/IDC)**

Hezkuntza Premia Berezien arloa

Dokumentu hau landu du:

Alicia Sainz Martínez andreak

**Euskarazkoa: HAEEko Itzulpen Zerbitzu Ofiziala / BITEZ®,
S.L.**

AURKEZPENA

Oinarrizko hezkuntzaren helburuetako bat gizabanako bakoitzak ditugun ahalmenak garatzen laguntzea da, eta ditugun ezberdintasunak eta hezkuntza-behar ezberdinak orekatzea. Gure hezkuntza-komunitatean, hezkuntza-behar bereziak dituztenei laguntzeko aukera dugu, ikastetxeetako ikasketa-planen egitasmoak egokitu egin ditzakegulako, hain zuzen ere. Egokitzeko neurriei esker, behar bereziak dituen ikasleari bermatzen diogu bere egoeraren arabera heziketa jasoko duela ingurune normalduan eta ikastetxe ulerkor eta integratzailean.

Helburu horrekin zenbait esperientzia burutu dira hezkuntzaren ohiko eremuan. Horrek bi gauza adierazten ditu: batetik, minusbaliatuen heziketa ulertzeko era aldatu egin dela, eta, bestetik, irakasleek praktika berriak eta erantzun egokia eman nahi dutela.

Heziketaren helburuak ikasle guztientzat berdinak izan arren, jakina da batzuek adinez dagokien ikasketa-plana aldatzea behar dutela, bai eta ezohizko baliabideak behar dituztela ere. Garatzeko arazo larriak eta orokorrak dituztenen kasua da hori. Horrelakoetan irakasleek oso garbi eduki behar dituzte pertsonaren garapenari buruzko printzipioak. Halaber, irakasleek informazioa, jarraibideak eta tresnak behar dituzte eguneroko lana errazago planifikatzeko eta jarrera hobea izateko irakasle nahiz pertsona moduan.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzak jakin badaki oso konplexua dela hezkuntza-behar larriak eta iraunkorrak dituztenei kalitatez laguntzea, bai eta garrantzitsua dela jarraibideak edukitzea ere. Horregatik

bidaltzen diegu irakasleei materiala; hain zuzen ere, material horrek lagunduko die ikasketa-plana hezkuntza-behar larri eta iraunkorrak dituztenen ikasteko ahalmenetara eta garapenera egokitzen.

Idatzi honekin, beraz, irakasleei lagundu nahi diegu. Zehazkiago, irizpide eta jarraibideak eskaini nahi dizkiegu, garatzeko arazo sakonak eta orokorrak dituzten eta baliabide ezohikoak behar dituzten ikasleei nola erantzun antolatzen laguntzeko. (Ezohiko baliabide horietako bat, esaterako, ikastetxe arruntetako gela egonkorrak dira.) Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzak lortu nahi du materiala lagungarri izatea hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleei ahalik eta ingurune normaldueanean irakasteko, bai eta materiala erreferentzia izatea ere ikastetxeetako ikasketa-planen egitasmoa planifikatzeko eta gela egonkorra programatzeko. Gainera, hori guztia, LOGSEk orokorrean ikasle guztientzat ezartzen dituen helburuak baztertu gabe egin dadila lortu nahi dugu.

Edurne Gumuzio Añibarro
Pedagogi Berrikuntzarako zuzendaria.

AURKIBIDEA

SARRERA

I. DEFINIZIOA

1. Garapenaren Nahaste Orokortuak dituzten ikasleentzako gela egonkorrak ikastetxe arruntetan
2. GNOentzako Gela Egonkorretako ikasleak
3. GNOentzako Gela Egonkorretako ikasleen hezkuntza-premia bereziak

II. GNOak DITUZTEN IKASLEENTZAKO GELA EGONKORRAREN CURRICULUM-PROIEKTUA

III. GELA EGONKORRAREN CURRICULUM-PROIEKTUAREN LANKETA

1. Lehenetasunak finkatzeko eta hezkuntza-helburuak aukeratzeko irizpideak
 - Adin kronologikoari egokitzen zaizkion helburuak aukeratzea
 - Nahastearen izaera eta larritasuna kontuan izatea
 - Ikaskuntza funtzionalei lehenetasuna ematea
 - Ikaskuntzaren zentzu instrumentala
 - Trebetasun alternatiboen irakaskuntza
2. Antolaketa-irizpideak
 - Ikaskuntzaren antolaketa ingurune ekologikoetan
 - Gelako eta ikastetxeko hezkuntza-ingurunearen antolaketa
3. Irizpide metodologikoak
 - Komunikazio-trebetasunen eta Gizarte-trebetasunen irakaskuntza
 - Jokabide disruptiboak eta desafio-jokabideak

IV. GELA EGONKORRAREN CURRICULUM-PROIEKTUA LANTZEKO PROPOSAMENA

1. Aurretiazko informazioa. Curriculum-erreferentziak
2. Gela Egonkorren Curriculum-Proiektuaren helburu orokorrak
3. Esperientzia-esparruak
4. Ingurune naturalak eta ikaskuntza-iharduerak

Eraskina: Gela Egonkorren Curriculum-Proiektua lantzeko eredua: Erabakiak hartzeko gida

V.- GELAREN PROGRAMAZIOA LANTZEKO PROPOSAMENA

1. Gelaren Programazioko elementuak
2. Ebaluazioa
3. Helburuak eta edukinak
4. Antolaketa-elementuak
5. Curriculum-Egokitzapen Indibiduala

Eraskina: Gela Egonkorren Programazioa: erabakiak hartzeko gida

VI.- PROFESIONALEN KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA

1. Familiarekiko lankidetzak
2. Gela Egonkorreko pertsona Laguntzailea
3. Ikastetxeko irakasleak
4. PAT eta TMP
5. Zerbitzu medikoa eta asistentzialak

VII.- IKASTETXE ARRUNTA: GELA EGONKORRA IKASTETXEAN BARNERATZEKO IHARDUERAK

ERANSKINAK:

1. Ingurune desberdinetan erabil daitezkeen ikusizko seinaleak eta sinboloak
2. Ingurune fisikoa eta soziala ulertzeko eta komunikatzeko ikusizko laguntzen eta gakoaren adibideak

BIBLIOGRAFIA

SARRERA

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak ikastetxe arruntetan integratzeak, premia desberdinetara egokitutako erantzun bat emateko helburua duten hezkuntza-esperientzien garapena bultzatu du. Hezkuntza-esperientziak abiarazi dira, metodologia desberdinak garatu dira, curriculum-materialak landu dira eta Curriculum-Egokitzapenak egin dira. Era berean, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateko baliabideak sortu dira eta eskola-elkarteak haiekiko duen esperientziari eta sentsibilizazioari dagokienez aurrerapen handiak egin dira.

Hezkuntza-esperientzia hauen barnean Curriculum-Egokitzapenak egitea, egoera desberdinei erantzuteko gehien erabili eta garatu den neurrietako bat da, Ikastetxearen Curriculum-Proiektuaren egokitzapenetatik curriculumaren egokitzapen indibidualetara doazen garrantzi gehiago edo gutxiagoko egokitzapenen itxurarekin. Azken urte hauetan, curriculuma hezkuntza-premia desberdinetara egokitzeak esan nahi duen guztiari garrantzi gehiago eman zaiola eta aurrerapen gehiago egin direla esan daiteke.

Hala ere, larrialdi gehieneko egoerei, hau da, egoera bereziei erantzuteko Curriculum-Egokitzapeneko neurri hauek baino zerbait gehiago eskatzen duten egoerak daudela erakusten digu ikastetxeetako eta geletako hezkuntza-errealitateak. Ikastetxe arruntetan kokatutako gela egonkorretan ikasten badute ere, dituzten ezaugarri bereziengatik curriculum arruntetan parte hartu ezin duten edo neurri oso txikian egin dezaketen minusbaliotasun larriak dituzten ikasleen kasua da.

Errealitate honen, ikasle hauen hezkuntza-premien eta premia pertsonalen nahiz gela egonkorretako irakaskuntzaren analisiak, erreferentzi gisa ikasle hauek kokatzen diren Ikastetxearen Curriculum-Proiektuan planteatzen den curriculuma besterik ez hartzea, minusbaliotasun larriak dituzten ikasleek beharrezkoenak dituzten ikaskuntzak programatzeko nahikoa ez dela erakusten digu.

Gela hauetara bertaraten diren ikasleen taldeak dituen ezaugarriak eta beren hezkuntza-premien larritasuna, irakatsiko dena eta dituzten ikasteko premiak erabakitzerakoan alde batera utzi ezin den erreferentzia da. Ondorioz, eskainiko zaien curriculuma asko egokitu beharko da.

Hemen aurkezten den lan honen helburua, Ikastetxearen Curriculum-Proiektuari dagokionez nahiz Gela Egonkorraren Programazioari dagokionez mota honetako Curriculum-Egokitzapenak egiten lagunduko duten jarraipideak eskaintzea da.

Honela curriculuma, ikasle guztientzat proposatutako hezkuntza-helburuetara egokitzen ez bada ere, talde honen oinarriko hezkuntza-premiak ere kontuan izanez, garatu behar dutenera gehiago egokitzen den curriculuma eskaini ahal izango da.

Sortzen den lehenengo premia, Gela Egonkorra kokatzen den ikastetxe arruntean burutuko den hezkuntza-iharduera gidatu eta bertan ikasten duten ikasleentzan egokienak diren helburuak eta lanerako edukinak jasoko dituen, Ikastetxearen Curriculum-Proiektuan integraturiko Gela Egonkorraren Curriculum-Proiektua lantzeko beharra da. Curriculumaren berezko alderdiek (helburuek, edukinek, metodologiek, etab.) bereizten duten baina kokaturik dagoen ikastetxearen iharduerako beste alderdi arrunt batzuetan (dinamika orokorra, antolaketa-alderdiak, ordutegien antolaketa, espazio amankomunen erabilera, elkarrekin egiten diren iharduerak, etab.) guztiz integraturik dagoen Gela Egonkorraren Curriculum-Proiektua izango da. Gela Egonkorraren Curriculum-Proiektu honek Gela Egonkorraren denbora jakin baterako Programazio zehatzaren lanketa gidatuko du.

Ondorioz, bi alderdi aztertuko dira:

1. Gela Egonkorraren Curriculum-Proiektuaren eta Gelaren Programazioaren lanketa, hau da, dokumentu honen xede diren alderdi nagusiak, eta
2. Ikastetxeko Curriculum Proiektua Gela Egonkorreko ihardueran modu integratuan barneratzeko modua.

Lan hau egitera bultza duten arrazoietakoa bat, gela egonkorrek Garapenaren Nahaste Orokortuak dituzten ikasleekin dituzten zailtasunen pertzepzioa da: arreta ematen dieten profesionalen prestakuntzarekin eta eguneratuta egotearekin, hauetan irakasleek jarraipena izatearekin, langile laguntzaileen eskuragarritasunarekin, gela berean adin kronologiko oso desberdineko ikasleak biltzearen ondoriozko antolaketarekin, hezkuntza-zerbitzuen eta zerbitzu soziokomunitarioen beharrezko koordinazioarekin eta abarrekin zerikusia duten zailtasunak, alegia.

Gela hauetan sortzen den arazo larriaren tratamenduak berekin dituen zailtasunak eta, ohizkanpoko neurriak direnez, logikoa den baliabide-urritasunagatik hauetan arreta ematen duten zenbait profesionalak jasan dezaketen isolamenduak, egoera profesional berean dauden

pareko langileekiko koordinazioa eta trukaketa ahalbidetuko duten formulak aurkitzea oraindik zailagoa egiten dute.

Era berean, aholkularitza tekniko eta lan-orientabideak eskaintzen dituzten TMPetako profesional espezializatuek ere jasaten dute arazo hau eta horregatik aholkularitza-zereginak eta geletako profesionalen koordinazioa areagotzea nahiz horretarako denbora espezifikoak aurriraketa beharrezkoa egiten da.

Zailtasun hauetako batzuek konponbide desberdinak eskatzen dituzte. Hala ere, hezkuntzako profesionalen beren eguneroko zereginak errazteko orientabideak eta materialak badituzte, hauetako asko nolabait arindu daitezkeela badakigu: talde jakin horrentzat egokienak, garrantzitsuenak eta funtzionalenak diren eta ikaslea gizarteratzea nahiz beharrezko garapena izatea ahalbidetzen duten ikaskuntzen curriculum-planteamendu funtzionalak egiten lagunduko duten antolaketa, programazioa, metodologia, etab. Hau da, azken finean, lan honen helburu nagusia; hezitzaileei, mota honetako geletan profesional gisa egin behar duten lanari dagokionez helburua garbi izaten laguntzea.

Aldi berean, gela hauetako profesionalen arteko trukeari eta koordinazioari dagokienez egon daitezkeen zailtasun edo gabeziak batzuk gutxitzeko helburua ere badu: material honen edo beste mota bateko materialen erabilera, interesak elkartzen dituen eta gela hauetako arduradunen arazo amankomunak tratatzen lagunduko duen arrazoi bat izan daiteke. Zabalik geratzen dira beraz, gela hauen aholkularitzaren arduradun diren pertsonen nahiz funtzio hauek betetzen dituzten laguntza-zerbitzuetako Talde Multiprofesionalek erabiltzeko nahiz, gela egonkorrei arreta ematen dieten profesionalen aholkularitza, koordinazio eta prestakuntza-prozesuetan, mintegien edo zonarteko topaketen bidez nahiz gelari aholkularitza zuzena ematerakoan erabiltzeko aukerak.

I. DEFINIZIOA

1. GARAPENAREN NAHASTE OROKORTUAK DITUZTEN IKASLEENTZAKO GELA EGONKORRAK IKASTETXE ARRUNTETAN

Ikastetxe arruntetan, bidezko egokitzapenak egin ondoren ere curriculum arrunta jarraitu ezin duten edo neurri txiki batean bakarrik jarrai dezaketen larriki afektaturiko ikasleei arreta emateko sortzen diren gelak dira.

Orokorrean, Hezkuntza Bereziko gela gisa ofizialki sortu ziren gelak dira eta hauetako batzuk Psikosia eta bestelako Garapenaren Nahaste Orokorrak dituzten ikasleei arreta emateko bereziki sortu ziren.

Gela hauei **EGONKOR** izaera ematen diena, arreta eragiten duten izaera larri eta iraunkorreko hezkuntza-premia berezien araberako baliabide egonkor batzuk esleituta izatea da.

Gela egonkorraren izaera definitzen duten ezaugarriak hauek dira:

- Gelak tutore espezializatu bat du.
- Eskatzen den espezialitatea Pedagogía Terapeutikoa da.
- Gelan laguntzaile bat egon ohi da.
- Ikasleek dituzten arazoaren larritasunaren araberako ratioa gela bakoitzeko 4-5 ikaslara mugatzen da.
- Curriculum-Egokitzapen garrantzitsua eskatzen du.
- Curriculuma garatzeko material eta ekipamendu berezia behar du.
- Ikastetxe arruntetan integraturiko espazio fisiko propioa eskatzen du, bertan hezkuntza-zereginaren zati bat planifikatu eta gauzatu ahal izateko.
- Espazio amankomunak, ordutegiak, eskola-ihardunaren banaketa eta egutegia, kokaturik dagoen ikastetxe arruntarekin elkarbanatzen ditu.

Kasu batzuetarako baliabide gisa gela egonkorra izateak, ikasle batek guztiz edo partzialki integratzeko dituen aukerak zalantzan jartzen direnik ez du esan nahi. Alderantziz baizik, ikasle batek ingurune ahalik eta normalizatuenean curriculum arrunta jarraitzeko aukera duen bitartean, sustatu beharreko eskubide eta lehentasun gisa izan behar da kontuan.

Hala ere, gure xedea ez da ikasle-talde hau. Ingurune arrunt baten barnean, ahalik eta muga gutxien gela egonkorren ingurunea sentitzen duten ikasleak aipatu nahi ditugu. Minusbaliotasun larriak dituzten ikasleak dira noski, ondoren deskribatuko diren hezkuntza-premia larri eta iraunkorrak dituztenak alegia. Haientzat ikastetxeko curriculum arrunta egokitzeo neurriak nahikoak ez izateaz gain, beren premia eta lan-helburu nagusienetatik oso urrun daude.

*"Eskola muinbakar eta integratzaileari buruzko txostena"*¹ izeneko dokumentuan ikastetxe arrunta "...beharrezko baliabideez horniturik, mota guztietako ikasleei arreta eman behar dion hezkuntza-espazioa da" ".gela arruntean ingurune horretako ikasle gehienei heziketa zuzena ematea ahalbidetzeko garatu behar diren aldaketa metodologikoak eta antolaketari dagozkionak azpimarratzeaz gain, eskola-sistemak ikastetxe arruntetan bete behar dituen premien arabera baliabide materialei eta giza baliabideei dagokienez ongi hornitutako espazioak izatea gomendatzen da...." (40. or.)

Zentzu honetan eta ikasle batzuek dituzten hezkuntza-premia bereziak kontuan izanik, Garapenaren Nahasketa Sakonak eta Orokortuak dituzten ikasleentzako Gela Egonkorrek, dituzten minusbaliotasunen larritasunaren arabera, haien garapenerako egokiena den eta, kasu honetan, ahalik eta gutxien mugatzen dituen testuingurua eskaintzen duen ezohiko baliabidea direla esan daiteke.

Ikasle batzuek azaltzen dituzten hezkuntza-premien izaerak eta larritasunak, hezkuntza esku-hartze indibidualizatua eta metodologiari nahiz antolaketari dagokienez gela arrunt batean lortzeko zailak diren baldintza jakin batzuetan eman behar den taldeko programa eskatzen dute. Horregatik, egoera hauetan eta ikasle jakin batzuentzat, ikastetxe arrunt baten giroan kokatutako gela egonkorra, garapen handiena ahalbidetzen duena izateaz gain, gizarteratzeko aukera gehien eskaintzen duen espazioa dela esan daiteke.

Gela hauek ikastetxe arruntetan kokatuta egoteak, hezkuntza-premia berezi eta oso desberdinei banakako arreta emateko baldintza onenak eskaintzea ahalbidetzen du. Bestalde, ingurune normalizatuan kokatuta dagoenez, normalizatzeko, gizarteratzeko eta, ikastetxearen espazio fisikoan integratuta egotean gehienetan Derrigorrezko Hezkuntzako antzeko adina

¹ *Eskola Muinbakar eta Integratzaileari buruzko txostena*. 1988. Eusko Jauriaritza. Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza. Gasteiz.

duten ikasleekin (6-16 urte ingurukoekin) topatzen direnez, ikastetxeko ikasle guztiekin lan kooperatiboa egiteko balioak eta jarrerak sustatzeko aukera oso interesgarriak eskaintzen ditu.

2. GNOentzako GELA EGONKORRETA KO IKASLEAK

Gela egonkorretako ikasleen ezaugarriak definitzerakoan, ezaugarriak ongi definituta dituzten talde jakinak finkatzea oso zaila da, minusbaliotasunaren edo ezintasunaren arabera kategoriatan banatzea edo diagnostikoa egitea besterik gabe ez baita gela egonkorra kasu guztietan hezkuntza-baliabide onena den ala ez erabakitzeke nahikoa.

Gainera, burutiko atzerapenaren definizio tradizionalei dagokienez gertatu diren aldaketa berritzaileak eta hauek hezkuntza-arretari dagokionez egiten dituzten ekarpen interesgarrien aurrean aurkitzen gara. Burutiko Atzerapenerako Elkarte Amerikarrak (AAMR 1992) ⁽²⁾ proposatzen duen definizio berriak, ezintasunak dituen pertsonak bere ohiko ingurunearen testuinguruan lortzen duen funtzionamendu-maila ere barneratzen du. Bere gaitasunen eta mugitzen den ingurunean lortzen duen funtzionamendu-mailaren arteko elkarreraginaren arabera, koefiziente intelektualetik eratorritako atzerapen-maila baino gehiago, beharrezkoa den laguntza-mota eta haren intentsitatea ebaluatzen saiatzen da.

Zentzu honetan, ingurunearekiko egokitzapen funtzionalaren irizpidea barneratuz, ikasle jakin batek behar ditzakeen baliabideei buruzko informazioa ematen ez duen diagnostikoaren irizpide bakarra baino gehiago, ondorengoa dela esan daiteke:

gela egonkorra, eskola-testuinguru arruntean funtzionatzeko arreta desberdinduagoa, arreta oso indibidualizatua eta burutzen dituzten zereginetan gainbegiraketa nahiz sarritan laguntza behar duten ikasle batzuentzako beharrezko laguntza da.

Baliabide-mota honen beharra, hezkuntza-premia bereziki larri eta iraunkorrak eragiten dituzten atzerapen orokortuen eta sakonen garapenari lotuta egon ohi da. Bestalde, gela egonkor bateko arreta orientatu dezakeen irizpide determinatzaile bat, alde batetik egokitzapen-maila nahiz ikasle jakin batek ingurune arrunt batean lortzen duen funtzionamendu-maila, eta

⁽²⁾ Zenbait Egile. *Mental Retardation*. 1992. American Association on Mental Retardation. Washington.

bestetik, behar dituen laguntza indibidualizatu-mota eta hauen intentsitea izan daiteke. Ez da gaitasun intelektualaren irizpidea bakarrik erabiltzen.

Orokorrean ondorengo berdintasunak dituzten ikasleei buruz ari gara:

- sakona ere izan daitekeen burutiko atzerapen larria.
- oinarrizko garapen-arlo batzuetan alterazio garrantzitsua: arlo sozialean, komunikazioan eta jokabidean, beti ere maila kognitibo baxuak soilik eragindakoak ez badira.
- defizit sentoriala edo mugimen-alterazioak bezalako beste nahaste asoziatu batzuen presentzia.
- etengabeko laguntza eta gainbegiraketa eskatzen duen funtzionamendu eskasa ingurune arruntean.

Kategorien interpretazioan malguak izanik, ezaugarri hauek ondorengo ikasleetan aurkintzen direla esan dezakegu:

• **Autismoa edo Garapenaren Nahaste Orokortuak dituzten ikasleak**

Garapenaren Nahaste Orokortuak dituzten ikasleek, autista izan ala ez, beren buruaren ezagutzari eta gairenakoak nahiz inguratzen duen mundua ulertzeari dagokionez urritasun larriak izan ohi dituzte. Beren nortasunaren ezaugarri nagusienetako bat beren burua isolatzeko eta beste pertsona batzuekiko kontaktuari ihes egiteko joera da eta honekin batera jokabide disruptiboak eman ohi dira. Hala ere, ez da harreman-arazo bat bakarrik, Komunikazioaren arloan, hitzezkoan nahiz ez-hitzezkoan, alterazio sakon eta konplexuak azaltzeaz gain komunikatzeko asmorik eza eta hizkuntzaren erabilpenari dagozkion alterazioak (hau da, hizkuntza ez erabiltzea edo gaizki erabiltzea) azaltzen baitituzte. Beste ezaugarri bat, gizarte-egoerak ulertzeko, gainerako pertsonen egoera mentalak egozteko, gainerakoek pentsatzen edo sentitzen dutena imajinatzeko eta beren emozioak komunikatu nahiz erakusteko duten zailtasuna da eta honek egokitzapen-arazo ugari nahiz jokabidearen alterazio garrantzitsuak eragiten ditu. Nahaste hauek, gehienetan burutiko urritasunarekin batera agertzen badira ere, urritasun posible honek ez ditu nahikoa justifikatzen eta hezkuntza-premia eta ezaugarri bereziak eta propioak ditu. Beren interesen esparrua oso mugatua da eta portaera bulkadatsuak eta estereotipiak azaltzeaz gain, objektu edo estimulu jakin batzuekiko erakarpen berezi bat sentitzen dute. Epilepsia, gorroria, edo

jokabidearen nahaste larriak bezalako arazo organikoekin asoziatuta egoten dira sarritan. Garapen kognitiboa arazo berezi honek markatzen du eta bere irakaskuntzaren ezaugarrietako bat, orokortzeko eta abstrakziorako izan ohi duten zailtasuna da.

• **Burutiko atzerapen larria edo sakona duten ikasleak**

Kasu hauetan, gaitasunen eta ahalmenen garapen orokorra oso txikia izaten da eta bere ezaugarri nagusia ikasteko nahiz ikasitakoa abstraitu eta orokortzeko zailtasuna da. Afektazioa nagusiki kognitiboa izaten da eta arreta, pertzepzioa edo oroimena bezalako beste funtzio batzuetan nahiz zeregin sinpleenak ere planifikatu eta exekutatzeko gaitasunean eragina izaten du. Horregatik, beharrezko egokitzapenak egiten ez badira, ingurunean moldatzea eta egokitzea oso zaila egiten zaio. Garapen kognitibo txiki honek komunikazioan eta komunikatzeko asmoan ere eragina du eta, komunikatzeko asmoa dagoen kasuetan ere, hitzen bidez egiteko zailtasun handiak izan ohi ditu. Kasu guztietan gertatzen ez bada ere, sarritan garapen-maila baxuak arazo emozionalak eta portaera-arazoak eragin ditzake.

Kasu larrienetan, hau da, beste mota bateko arazo organikoak edo sentimen, pertzepzio eta mugimen-sistemetan eragina duten izaera neuromotoreko afektazioak asoziatuta dituzten kasuetan, jasaten dituen ikasleak ingurunea ulertzeko eta komunikatzeko arazo larri gehiago ditu, hitzik egiten ez duelako, komunikatzeko asmorik ez duelako edo mugikortasun urria duelako . Egoera hauetan osasun-arazoak edo gaixotasun kronikoak izatea nahiko normala da eta honek premia bereziak hezkuntzaren arlo osagarrietara zabaltzen ditu. Hau, hezkuntzaren plangintza egiteko orduan kontuan izan beharko da.

3. GNOentzako GELA EGONKORRETAKO IKASLEEN HEZKUNTZA-PREMIAK

Gela egonkorrean, behar dituzten baliabide-motari eta hezkuntza-arretari dagokienez, antzeko ezaugarriak dituzten ikasleak topatzen dira, premia hauek arazo desberdinek eragindakoak badira ere. Talde honi amankomunak zaizkion oinarrizko hezkuntza-premia berezi batzuk zehaztu daitezke eta hauek, Curriculum-Proiektuaren eta Gela Egonkorren Programazioaren helburuak baldintzatuko dituzte. Garapenaren Nahaste Orokortuen berezko

premia-motarekin bat datozen hezkuntza-premia berezi, larri eta iraunkorretaz ari gara hitz egiten.

Hezkuntza-premia hauek ikasleari egokitutako Curriculum-Proiektua lantzerakoan kontuan izan beharreko elementuetako bat dira.

Ondoren deskribatzen dira:

1. Hitzezko eta ez hitzezko komunikazioarekin zerikusia duten HPBak

arrazoia:

- komunikatzeko asmorik ezin dute izan.
- ongizate fisikoa eta emozionala lortzeko ingurunearekiko elkarreaginik izaten ez dakite.
- komunikazio funtzionala, ahozko lengoaiaren bidez edo zeinu bidezko lengoiaia etab. bezalako Komunikazio-sistema alternatiboen bidez hobetu behar dute.
- ingurune fisikoa eta gizartea ulertzen lagunduko dieten eta portaera-arazoak saihestuko dizkieten komunikazio-estrategien beharra dute.
- funtzio sinbolikoan eta lengoaiaren erabilpenean sartzen lagundu behar zaie.

2. Autonomiarekin eta Nortasun Pertsonalarekin zerikusia duten HPBak

arrazoia:

- Ahalik eta gutxien mugatzen dieten inguruneetan eta eguneroko ingurunean ahalik eta ongien moldatzea lortzeko beharra dute.
- jokabide-arazorik ez izateko norbere portaeraren autokontrola eskuratzeko beharra dute.
- beren ekintzak, mugitzen diren testuinguruari egokitu behar dituzte.
- independentzia emango dieten oinarrizko ohituren eskuraketa segurtatzeko beharra dute: elikadura, garbitasuna, jokabidea, etab.
- ongizate fisikoa, afektiboa eta emozionala emango dieten independentzia pertsonala lortzeko beharra dute.

- eguneroko bizitzako ihardueretan sartzeko eta, ahal den neurrian, etorkizunean lan bat izateko aukeraz jabetzeko beharra dute.
- gizarteratzea ahalbidetuko dien independentzia behar dute.

3. Oinarrizko HPB sozialak eta zaintza pertsonalekoak

arrazoiak:

- portzentaia altu batek arreta medikoa behar du, medikamentuak hartu behar ditu eta aldizkako azterketa medikoak egin behar ditu. kasu hauetan, eskolak emandako informazioa oso garrantzitsua izaten da.
- portzentaia batek nahaste epileptikoak edo/eta jokabide-nahasteak ditu asoziatuta.
- gainerakoek barneko egoerak, egoera fisikoak nahiz emozionalak transmititzeko ezintasuna dute.
- zaletasunetarako eta aisirako denborak, etab. beren kabuz ezin dituzte antolatu.

4. Gizarte-esparruarekin (kognitiboa eta emozionala) zerikusia duten HPBak

arrazoiak:

- ingurune fisikoaz gain, gizarte-ingurunearekiko kontrola izaten ikasteko beharra dute.
- beste pertsona batzuekiko eta hurbileko ingurunearekiko kontaktua sustatu behar dute.
- giro sendoa eta laguntza emozional berezia eskaintzen dieten estrategien beharra dute.
- gertatuko dena aurrakusten ikasteko beharra dute.
- mundua ezagutu eta beren ekintzak giro egituratu batean planifikatzeko estrategiak eskuratzeko beharra dute.

5. Esparru kognitiboarekin zerikusia duten HPBak

arrazoia:

- ikasitakoa orokortzeko zailtasunak dituzte.
- beren pentsamendua zehatza da eta berehalako egoeretan hobeto iharduten dute.
- pertzepzio, oroimen eta arreta-arazo bereziak dituzte.
- imitatzeko eta prozesu sinbolikoetarako zailtasunak dituzte.
- printzipioen eta arauen abstrakzioa egitea eta egoera desberdinetan aplikatzea zaila egiten zaie.

6. Laguntza bereziekin zerikusia duten HPBak

arrazoiak:

- banakako arreta behar dute.
- giro egituratua behar dute.
- zereginak burutzeko sarritan gainbegiraketa eta laguntza beharra dute.
- metodologia berezien eta pertsonarteko ekintzaren bidez sendotasun emozionala eman behar zaie.
- ingurunearen ulerketa errazteko komunikazio handigarritzko sistemak eskuratzeko beharra dute.
- curriculum-egokitzapen garrantzitsuen beharra dute.

II. GARAPENAREN NAHASTE OROKORTUAK DITUZTEN IKASLEENTZAKO GELA EGONKORRAREN CURRICULUM-PROIEKTUA

Gela egonkorren funtzioa, minusbaliotasun larriak dituzten ikasleen hezkuntza-premietara eta ezaugarrietara egokituko den curriculuma eskaintzea da. Hezkuntza-proposamena diseinatzen eta planifikatzen denean, aurrez aipatu diren premia berezi hauek ikaskuntzaren helburuak eta edukinak hautatzerakoan eragin zuzena izango dutela asmatzea ez da zaila.

Hezkuntza-eskaintzaren egokitzapenean, minusbaliotasun larriak dituzten ikasleen garapenean garrantzi gutxien duten helburu eta edukinak **kanpo uztea**, beren premia bereziei erantzuten dieten alderdi osagarri edo alternatiboak **aldatu** edo sartzea, edo bestela, curriculum ofizialean agertzen ez diren, agertzen badira denbora desberdinetan edo minusbaliotasun larria duten ikasleen taldearentzat duten garrantzi guztiarekin jasotzen ez diren helburu eta edukinak **barneratzea** beharrezkoa izan daiteke.

Zer irakatsi eta **nola** irakatsi, espazioa eta denbora antolatzeko modua, erabiliko diren laguntzak, dituzten premia bitxiatarako erabili beharreko metodologia alternatiboak edo/eta bereziak, etab. erabakitzen direnean Gela Egonkorren Curriculum-Proiektua sortzen da, arreta jasotzen duten ikasleei egokitu eta beraientzat berezia. Alderdi batzuei dagokienez, curriculum ofizialetatik eta ikastetxeak antzeko adina duten ikasleentzat finkatzen duen Curriculu-Proiektutik nahiko urrun egongo da, baina egitura bera izaten jarraituko du eta ikastetxe arruntak eskaintzen duen ingurune normalizatuko hezkuntza-antolaketa eta iharduera berean oinarrituko da.

Gela Egonkorren Curriculum-Proiektua, denboraldi jakin baterako Gelaren Programazioa lantzeko nahiz programak garatzeko eta Curriculum-Egokitzapen Indibiduala egiteko oinarri gisa erabiliko da.

Ikusi dugun bezala, minusbaliotasun larriak dituzten ikasleek, curriculum-esparrua gainditzen duten eta balorazioa nahiz erantzuna eskatzen duten beste batzuk barneratzen dituzten hezkuntza-premiak dituzte. Premia hauetako askok garapenaren oinarritzko arloekin (funtzionamendu independentea, oinarritzko ohitura pertsonalen garapena, gizarte edo emozio-trebetasunen garapena, gizartean komunikatzea, etab.) zerikusia dute eta askotan eskola-curriculum arruntean ez dira aurrikusita egoten edo, garapenaren hasierako adinentzat bakarrik

aurrikusita egoten badira ere, bere bilakaera pertsonalean zehar oinarrizko premia gisa mantentzen dira eta eskola-curriculumean barneratu behar dira.

Hala ere, hezkuntza-premia bereziak baloratzeko eta ikasleen oinarrizko premia hauek nahiz, dituzten minusbaliotasunen gainetik, pertsona guztiei amankomunak zaizkien hezkuntza-helburuak barneratuko dituen hezkuntza-programa bat planifikatzeko beharrezko erreferentzia garrantzitsua da curriculum arrunta. Kontua ez da, beraz, curriculum arruntarekin inolako loturarik ez duen curriculum berezi bat planteatzea, kasu honetan bereziak diren hezkuntzaren eta ikaskuntzaren edukinak eta helburuak hezkuntza-sistemak ikasle guztientzat eskaintzen dituen elementuekin integratuz, hezkuntza-helburu bera jarraituz eta ikasle bakoitzaren gaitasunak ahalik eta ongien garatzeko egokitzea baizik.


Beraz, gela egonkor batean ikasten duten ikasleentzat proposatzen den hezkuntza-curriculuma errealitate-esparru batean oinarrituko da eta, zentzu honetan, ardatz bikoitz batera egokitu beharko du:

- alde batetik, ikaslearen errealitatea eta dituen larritasun ezaugarriak nahiz hezkuntza-premien iraunkortasuna, adin kronologikoa, gaitasunak, interesak, behar izan ditzakeen etengabeko laguntzak, autonomia pertsonala izateko ezinbestekoak diren ikaskuntzak, etab. jaso behar ditu.
- bestalde, hezkuntza-errealitatea eta abiarazi den hezkuntzaren erreformaren oinarri diren printzipioen ekarpenak kontuan izan behar ditu; hezkuntza-etapa desberdinen curriculuma, curriculum-eskaintza garapen arazo larriak dituzten ikasleen premietara egokitzeko eta, duen gaitasun-mailaren eta eskola nahiz familia-ingurunearen ezaugarrien arabera, ikasi behar duena finkatzeko erreferentzietako bat da.

Ikastetxearen Curriculum-Proiektuaren lanketa, iturri desberdinetan oinarrituriko OCDetan inspiratzen da: psikologikoa, pedagogikoa, epistemologikoa eta soziologikoa. Honen antzera, Gela Egonkorren Curriculum-Proiektua minusbaliotasun larrienak dituzten ikasleentzako erantzunak ematen saiatzen denez, bere egokitzapen-prozesuan iturri hauek berak berrikusi behar ditu, eskola-erantzun egokiena proposatzeko informazioa ematen baitute. Iturri hauetako bakoitzak, hezkuntza-premia larriak eta iraunkorrak dituzten ikasleen ezaugarriei buruzko informazioa emateaz gain, helburuak, irakasteko modua, edukin garrantzitsuenak, etab. aukeratzekoan orientabideak ematen dizkigu, emaitza gisa Gelako Curriculum-Proiektua emanaz. Ondorengo eskeman (**1. Eskema**) ikaskuntza-helburuen formulazioak eragiten duen zehaztapen-prozesuaren zati bat laburtzen du.

Gela Egonkorren Curriculum-Proiektuan zehaztutako hezkuntza-proposamenak, Gelako Programa lantzeko orientabideak ematen ditu. Hau denboraldi baterako pentsatuta egoten da, orokorrean ikasturte baterako, eta denboraldi horretako lan-helburu nagusiak, ihardueren antolaketa, gelan ikasten duten ikasle-taldearen arazo bereziak tratatzeko jarraitu beharreko metodologia, ebaluatzeko modua, ikasleen jarraipena egiteko modua, etab. jasoko ditu. Espazioaren eta denboraren antolaketari, laguntza-materialei nahiz ikastetxearen testuinguru arruntarekin elkarbanatu beharreko ihardueri buruzko alderdiak eta gelaren iharduera ikastetxeko "bizitzan" edo alderantziz barneratzeko modua ere jasoko dira (ikus 67-69 or. Gelako Programazioaren eskema).

1. Eskema: HPBak dituzten ikasleentzako curriculum-iturrien informazioa.



GELA EGONKORRAREN CURRICULUMA
GELAREN PROGRAMAZIOA



eragiten du nagusiki :

- Oinarrizko osasun eta ongizate-premiak
- Autonomia pertsonala
- Komunikazio-trebetasunen garapena
- Ingurune fisikoaren ezagutza
- Gizarte-ingurunearen ezagutza eta ulerketa
- Gaitasun kognitiboen garapena
- Ingurune desberdinen funtzionamendua: etxea, eskola, aisialdia, gizartea, lana, etab.

Garapenaren Nahaste Sakonak dituzten ikasleen ezaugarrietako bat, beren hezkuntza-premia larri eta iraunkorren aldagarritasuna eta heterogenotasuna da eta hau taldean nahiz banakako gisa azaleratzen da hazkunde pertsonalean. Dituzten minusbaliotasunen larritasunak, bilakaera psikologikoaren perfil oso desberdinak markatzen dituzten eta pertsona batetik bestera oso aldakorrek bihurtzen diren banakako garapen-prozesuak eragiten ditu. Ikasle bakoitzaren eskolatzean zehar banakako bilakaeraren une jakin batzuei erantzuteko helburua duten banakako hezkuntza-balorazioak, programazioak eta esku-hartzeak egin beharko dira. Hauek, ikasle bakoitzaren banakako Gela Egonkorren Curriculum-Proiektuak eskaintzen duen esparruan oinarrituz egingo dira, ikasle bakoitzaren Curriculum-Egokitzapen Indibiduala osatuz. Curriculum-Egokitzapena eta Banakako Programa hau lantzeko Gela Egonkorren Curriculum hartuko da erreferentzi gisa. Azken hau bera ere asko egokituta egongo da, seguraski arlo jakin batzuk barneratu eta beste arlo batzuk nahiz orokorrean proposatutako beste helburu eta edukin batzuk kanpo utziko baitira.

Bat baino gehiago dira, beraz, gela egonkorren buruzko elementuak Ikastetxearen Curriculum-Proiektuan:

- Gela Egonkorren Curriculum-Proiektua
- Gela Egonkorren Programazioa
- Banakako Programa edo Curriculum-Egokitzapena

Irakaskuntzan, gela egonkorra ikastetxe arruntean barneratzen denez, ondorengo auzia planteatzen da: ***Gela egonkorren curriculum-elementuak, kokatzen den ikastetxe arruntaren elementuekin nola lotuko dira?*** Curriculumaren garapenari dagokionez, Ikastetxearen Curriculum Proiektuak, Gela Egonkorreko ikasleentzat planteatzen den Curriculum-Proiektua bere zati bat izango balitz bezala jasotzea da egokiena: lortu nahi diren helburuak, lehentasuna duten edukinak, lan egiteko modua, etab. Hezkuntzari dagokionez, iharduera sinpleak eta zehatzak proposatu behar dira, ikasleek, mota batekoek nahiz bestekoek, ikasteko eguneroko bizitzan elkarreraginezko eta harremanezko uneak ulertu eta elkarbanatu ahal izan ditzaten.


Beraz, Ikastetxearen Curriculum-Proiektuak, aniztasunari dagokionez eta gela egonkorren kasuan, bi alderdi nagusi hauetan eragina duten erabakiak barneratu beharko ditu:

- Gela Egonkorrentzat planteatzen den Curriculum-Proiektua

- Ikastetxean sustatuko diren helburuak eta balioak, elkarbanatutako iharduerak, espazio amankomunak, etab. nahiz ikastetxean hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei buruz ikastetxeko ikasleei, eta bereziki gelan arreta jasotzen dutenei zuzendutako informazio, lankidetzak eta laguntza-iharduerak.

Ondorengo eskema honek (2. **Eskema**) elementu hauen guztien antolaketa azaltzen du:

2. Eskema: Ikastetxearen eta Gela Egonkorren Curriculum-Proiektua



III. GELA EGONKORRAREN CURRICULUM-PROIEKTUAREN LANKETA

1. LEHENTASUNAK FINKATZEKO ETA HEZKUNTZA-HELBURUAK AUKERATZEKO IRIZPIDEAK

Gela Egonkorreko ikasleentzako Curriculum-Proiektua garatzeko orduan ikasteko premia dutena **zer** den eta **nola** irakatsiko den argi eta garbi definitzea beharrezkoa da. Larriki afektaturiko ikasleentzat lehentasuna duten ikaskuntza-helburuen aukeraketa, minusbaliotasun larriak dituzten ikasleen irakaskuntzan eta ikaskuntzan garrantzi handia duten irizpide batzuk kontuan izanez egin behar da. Ondorengo hauek dira:

➤ Adin kronologikoari egokitzen zaizkion helburuak aukeratzea

Pertsonen adin kronologikoak, beste zirkunstantzia batzuekin zerikusirik ez duten ezaugarri eta premia jakin batzuk ditu berekin. Haurtzaroak, nerabezaroan agertzen direnen eta helduen arorako trantsizioko etapetan agertzen direnen premia desberdinak ditu. Gainera, gizarteak pertsonen adin kronologikoarekin bat datozen edo zerikusia duten balio eta eskakizun jakin batzuk barneratzen ditu eta igurikapen batzuk formulatzen ditu. Horrela, adibidez, jate txetxe batean modu desegokian portatzen den haur txiki baten aurrean inguruneak nolabaiteko tolerantziarekin erantzuten du, baina gertaera bera ez zaio adin gehiagoko haur bati, nerabe bati edo gazte bati onartuko.

Minusbaliotasun bat duten pertsonen kasuan beren premia pertsonal batzuk adin kronologikoari lotuta daude, minusbaliotasunik ez duen beste edozein pertsona baten kasuan bezala. Horregatik du hainbesteko garrantzia, ikaslearen adinetik eratorritako interes edo zirkunstantziekin bat datozen helburuak aukeratzea.

Ikaskuntza-mailan desfase garrantzitsuak dituzten ikasleen irakaskuntzan sarritan izan ohi den arriskueta bat curriculum haurrentzat izango balitz bezalako egitea da. Garapenaren nahaste bat duen haur baten adin kronologikoa alde batera utzi ezin den erreferentzia da eta bere interesak ez dira parekatu daitezkeen ikaskuntza-mailak dituzten haurrekin bakarrik bat etortzen (adib. burutiko urritasuna duen 14 urteko haur batek

irakurtzen ikas dezan ezin dira 6 urteko haur batekin erabil daitezkeen metodo eta pizgarri berak erabili, bere garapen adina hori bada ere).

Gelaren Curriculum-Proiektua diseinatzerakoan bere adinekoren erreferenteak hartu behar dira ahal den neurrian, minusbaliotasunik gabeko ikasleek aukeratuko lituzketen iharduerak edo inguruneak proposatuz. Ikaslearen adinaren eta mugitzen den ingurunearen arabera aukeratutako interesen, beharren, lehentasunen, ohituren eta kulturaren inbentario batetik abiatzea komeni da. Honek minusbaliotasunik gabeko pertsonekin elkarreragin positiboak izateko aukerak gehitzera zuzendutako helburuak eta ikaskuntzak aukeratzeko balioko du.

Haurraren adin kronologikoa kontuan izateak, ikaskuntzan erabiliko den materialaren aukera zorrotza egitera ere behartzen gaitu (mugimen-trebetasunak garatzeko materiala, jokorako materialak, komunikazioa garatzeko materialak, etab.) ikasle bakoitzaren adinera egokitu behar baitu. Integratzeko dituen aukerek eta gizarteak honi dagokionez dituen igurikapenek, minusbaliotasunak dituzten pertsonen “esperientzia” bat elkarbanatzeko aukera izan dezaten eskatzen du eta hau errazagoa izango da espazio, material, itxura fisiko, etab. berak ere elkarbanatzen badira. Adibide jakin baten bidez ikusiko dugu: mugimen-trebetasunak garatzeko ikasle txiki batek koloretako piezak erabil ditzake baina material hau ez da gomendagarria izango nerabe batentzat eta kasu honetan egokiagoa izango da giltzak, etengailuak, larakoak, etab. bezalako objektu erreal bat erabiltzea, mugimen-gaitasun berak garatzeko balio badute ere, ikaslearen adinerako material egokiagoa baitira.

📌 Nahastearen izaera eta larritasuna kontuan izatea

Haur batzuek dituzten nahasteen izaera eta larritasuna, bizitzan zehar irauten duten ikaskuntza jakin batzuk eskuratzeko zailtasun gogorrekin batera gertatu ohi da nerabeak, gazteak edo helduak direnean. Errendimendu intelektual zaila eta mugatua izateaz gain, ikasle hauek beste arazo batzuk ere izan ditzakete, adibidez gorreria, itsutasuna, jokabide-arazo larriak, hitzez komunikatzeko ezintasuna, ingurunea ulertzeko zailtasun larriak, osasun-arazoak, etab.

Minusbaliotasun hain garrantzitsuak dituzten pertsonen ikaskuntzen nahiz errendimenduaren ezaugarriak hezkuntza-programak planteatzerakoan kontuan izan behar dira. Horrela, eskuratu ditzaketen trebetasunak gutxiago direla, hauek eskuratzeko denbora, saio eta esperimentazio gehiago behar dituztela, ikasitakoa laster ahazten dutela, egoera batean ikasten

dutena beste batera transferitzeko eta orokortzeko zailtasunak dituztela eta testuinguru desberdinetan ikasitako trebetasunak sintetizatu eta praktikoki beste testuinguru edo giro batean aplikatzeko gai ez direla badakigu.

Horregatik funtsezkoa da:

- ingurune integratuetan orain nahiz etorkizunean eraginkorki parte hartzeko garrantzi gehien duten hezkuntza-trebetasunak aukeratzea.
- curriculumaren plangintzan, oinarrizko trebetasunen ikasketarako erabiliko den denbora gehitzea.
- ikasleek parte hartu ohi duten eskolaz kanpoko beste ingurune batzuetan beharrezkoak diren trebetasunak hautatzea.
- trebetasun bat ikasteko hautatu aurretik, hori eskuratu ondoren maiz erabiliko duela ziurtatzea.
- konplexuegiak ez diren eta beren garapen potentzialeko zonaren barnean “*azaleko ikaskuntzak*” deitzen diren haiek erakustea, konplexuegiak diren trebetasunak erakustek denbora eta ahalegin neurrigabeak eskatzen dituen curriculum desorekatu baitezake. Baina hori bai, trebetasun konplexu hauen irakaskuntza eraginkorra eskaini egin beharko zaio, eskolako nahiz eskolaz kanpoko ingurune askotan beharrezkoak direlako garrantzitsuak gertatzen direnean.

Ondorioz, autonomia eta funtzionaltasun aukerak ahalik eta gehien garatzen dituzten eta, eskuratzen ez badira beste pertsona batek burutu beharko dituen trebetasunen eskuraketa sustatuko duten ikaskuntzei eta helburuei lehentasuna eman behar zaie. Autonomia pertsonal hau orainaren arabera izan behar da kontuan, hau da, haurra gazteagoa denean; baina baita haur bakoitzak pertsona gisa garatzeko etorkizunean izango dituen premien arabera ere, hezkuntzaren atal bakoitzean garatzen joango diren helburuak sekuentzietan planifikatuz.

📌 **Ikaskuntza funtzionalei lehentasuna ematea**

“*Funtzional*” adierazpena, norbaitek burutu behar dituen ekintzetan eta minusbaliotasunak dituen ikasle batek burutu ezin baditu, bere ordeztu beste pertsona batek egin beharko dituen ekintzetan oinarritzen da. Lou Brown ⁽³⁾ egileak sakonki garatzen duen printzipio hau kontuan izanik, zeregin eta trebetasun funtzionalen erreperitorio ahalik eta zabalenen ikaskuntza

(3) LOU BROWN. 1989. *Criterios de funcionalidad*. Bartzelona. Fundación Catalana Síndrome de Down.

planteatu behar da, haur batek bere kabuz egin dezakeena gehiago den neurrian, gehiago errespetatu eta baloratuko baitzaio elkartean, honela bere bizi-kalitatea hobetzen lagunduz.

Printzipio honek hezkuntza-helburuen eta ikaskuntza-edukinen hautaketan eragin zuzena du. Ingurunean funtzionaltasun-maila altuena duten ikaskuntzei lehentasuna eman behar zaie, batez ere adin jakin batzuetan, hezkuntza-testuinguruan funtzionaltasun-maila baxuagoa baina helburu jakin batzuk dituzten ikaskuntzak planteatzen badira ere; adibidez, jokabidea kontrolatzea edo eskuratutako ikaskuntzak mantentzea. Laburbilduz, baldintza berdinetan, ikasleek autonomiaz moldatzeko dituzten aukerak gehitzen dituzten ikaskuntzei eman beharko zaie lehentasuna: ikasleak berak eskuratzen ez baditu beste pertsona baten esku-hartzea eskatzen duten trebetasun haiek, alegia.

Funtzionaltasunaren printzipio hau errespetatzen duen Gela Egonkorren Curriculum-Proiektuak, ikasle batek bere egungo ingurunean nahiz etorkizunean mugitu beharko duen giroetan ahalik eta autonomia gehienez moldatzeko behar dituen trebetasunak kontuan izan behar ditu. Trebetasun hauek, giro horietan egokitzapen eta funtzionamendu-maila altuena lortzeko garrantzi gehiena dutenak izango dira eta hautatzerakoan, funtzio praktikoa dutenek eta pertsonari eguneroko bizitzarako erabilgarriak zaizkion haiek izango dute lehentasuna.

Curriculum-Proiektuaren helburuetako bat ikasle bakoitzak giro desberdinetan duen partaidetza gehitzea da; hau da, giro desberdinetan (etxean, elkartean, eskolan, aisialdian) eraginkorki integratu eta moldatzea ahalmenetako dioten eta gaur egun nahiz bere bizitzan zehar on egingo dioten beste giro batzuetan sartzen lagunduko dioten trebetasunak erakusteko diseinatuta egon behar du.

Curriculum funtzional baten asmoa, ikasleak beregan eragin zuzena duten gertakarietan eragiteko eta bere giroaren kontrol handiagoa izateko gaitasuna sustatzea ere izan behar du eta, ondorioz, ikaslea mugitu ohi den giro naturaletan "*funtzionatzeko*" balio duten komunikatzeko eta independentzia izateko trebetasunen garapenean jarriko dute arreta hezkuntza-programek.

Zentzu honetan, komunikazio-trebetasunak nahiz gizarte-trebetasunak dira beharrezkoenak. Atzerapen handiak dituzten ikasleek jokabide-arazoak, kasketaldiak, haserrealdiak, etab. izan ohi dituzte, arazo larri hauek berekin duten komunikatzeko ezintasunaren ondorioz. Horregatik, hau gertatzen den egoera edo giroetan erabiltzeko ikas ditzaizketen komunikazio-estrategia funtzionalak eman behar zaizkie.

Ikasteko, ikasitakoa orokortzeko eta beste egoera batzuetan aplikatzeko minusbaliotasun larriak dituzten ikasleen zailtasunek, hezkuntza-programetan funtzionaltasun altuena lortzeko lehentasun batzuk planteatzen dituzte.

Hauek dira:

- Ikasleak ahalik eta zabalena diren giroetan, hau da, eskolan, familian, komunitatean (parkean, kafetegian, zinean, azokan, garraiobideetan, etab.), asialdian, lanean hasi aurretik, etab. partaidetza eraginkorra izaten jarraitzeko ezinbestekoak diren trebetasunak aukeratu eta haiei lehentasuna ematea.
- Irakaskuntza amaitzen denean ikasitako oinarriko trebetasunak mantentzea ahalbidetuko dion mailan irakastea.
- Ikasleak autonomiaz parte hartu behar duen giro-mota desberdinei amankomunak zaizkien trebetasunen irakaskuntzari lehentasuna ematea eta gehitzea.
- Eskolaz kanpoko bere bizitzan burutzen dituen ihardueretan behar diren eta bere egungo bizitzan nahiz etorkizuneko premietan eragina duten trebetasunak erakustea.

📌 **Ikaskuntzaren zentzu instrumentala**

Ikaskuntza instrumentalaren ideia, aurrez azaldu den ikaskuntzaren funtzionaltasun printzipioarekin nahiz ikaskuntzaren zentzu ekologikoarekin zuzenean lotuta dago: ingurunean funtzionatzeko, integrazioa errazteko eta ingurunean ahalik eta ongien moldatzea lortzeko tresna erabilgarriak eskuratu behar dira. Zentzu honetan, ingurune fisikoan nahiz gizartearen moldatzeko, inguruneak bildaltzen dizkion mezuak ulertzeko, behar duena nahiz lehentasuna duena komunikatzeko, eta azken finean, ingurune fisikoan nahiz gizartearen ekintza independenteak burutzeko balio duten *tresna* gisa ulertzen dira ikaskuntzak.

“*Ikaskuntza instrumental*” kontzeptua, hitzaren zentzu zabalenean ulertzen bada, Hezkuntza Etapetarako Oinarriko Curriculum-Diseinu batzuetan azaltzen denaren amankomuna da. Arlo instrumentaleko irakaskuntzek garrantzi gehiago duten eta ezaugarritzen duten Lehenengo Etapan zehazki, irakurketa eta idazketa-teknikak ingurunearekin komunikatzea ahalbidetzen duten tresna gisa planteatzen dira.

Xede hau gure kasuan ere bideragarria da. Defizit garrantzitsuak daudenean, curriculumak ikaskuntza instrumentalezko helburuak ere barneratu behar ditu, erabilitako edukinak eta metodoak funtsean desberdinak badira ere; ingurunearekin komunikatzeko

erabilgarriak diren erreminta gisa erabil ditzakeen tresnak eta estrategiak eskuratzea da asmoa. Minusbaliotasun garrantzitsuak dituzten ikasle gehienek, beraientzat eta beraiekin harremana duten eta bizi diren inguruko pertsonentzat oso erabilgarriak izan daitezkeen tresna desberdinen bitartez eskuratu ditzakete komunikazio-trebetasunak (idatzitako testuen ordez, ikusizko gakoak edo piktogramak erabiliko dira tresna gisa).

Kasu hauetan, ingurunearekin komunikatzeko tresnak eskuratzeko egokia da:

- ikusmen bidezko laguntza-pertzeptiboak erabiltzea, nagusiki egoera bakoitzean esanahi jakin bat hartzen duten objektu errealen, zeinu grafikoen, marrazkien edo ikurren bidez.
- B. Shaeffer-en Makaton sistema, zeinuzko hizketa edo erabateko komunikazioa bezalako komunikazio-sistema alternatibo edo handitzaileak erabiltzea.
- laguntza teknikoak, hezkuntza-premia larrietara egokitzen diren ingurunearekin komunikatzeko tresna erabilgarri gisa erabiltzea.

📌 **Trebetasun alternatiboen irakaskuntza**

Ikaskuntza-helburuak eta edukinak, irakaskuntza-estrategia metodologiko gisa hautatzean datza. Trebetasun alternatiboen irakaskuntza, ikaslearentzat garrantzitsuak diren eta lehentasuna duten zenbait helburu, ikasteko dituzten zailtasunen ondorioz eskuratu ezin direnean planteatzen da: orduan, helburu berdinak lortzera zuzendutako trebetasun alternatibo batzuk irakatsi behar dira. HPB larriak eta iraunkorrak dituzten ikasleen heziketan gainerako ikasleentzako programazioaren ihardespenak diren programazioak ezin dira planteatu, haietan ikasle guztiei irakatsi behar zaizkien sekuentzia berak finkatzen baitira. Adib. Heldu batek supermekatu edo jatetxe batean egindako erosketaren kontua ordaintzeko behar duen diruaren zenbatekoa ez du xehetasunez zenbatzen; ohikoena estrategia azkarragoak eta funtzionalak erabiltzea da, adibidez 800 pezetako kontua ordaintzeko mila pezetako bilete bat emango du. Era berean, minusbaliotasun kognitibo garrantzitsuak dituzten ikasleen eskola-programetan, eguneroko arazoak konpontzeko beraiek erraztasun gehiagoz eskuratuko dituzten eta funtzionalenak diren estrategiak aukeratu behar dira.

Gela Egonkorraren Programazioen garrantzia eta funtzionaltasuna, subjektuak iharduera autonomiaz burutzeko duen gaitasunean oinarritzen da, iharduera nola burutzen duen kontuan izan gabe. Exekuzio-trebetasun alternatiboen irakaskuntzak minusbaliotasunak dituzten pertsonen heziketan duen garrantziaren eta Gela Egonkorraren Programan oinarritzko ikaskuntza batzuk, ikasleek autonomia eta ikaskuntza lortzeko helburua duten edukin alternatiboez ordezkatzeko beharraren arrazoietakoa bat da hau.

Ondoren, HPBak dituzten ikasleentzako hezkuntza-programetan ohikoak diren ikaskuntza-dukinen exekuzio-trebetasun alternatiboen adibide batzuk aurkezten dira.

Trebetasuna	Trebetasun alternatiboa	Ihardueren adibideak
1. Irakurketa eta idazketa	<ul style="list-style-type: none"> • Ikurrak, errotuluak eta piktogramak testuinguru funtzionaletan irakurtzea. • Produktuak eta ontziak ezagutzea. • Inguruneak piktograma, ikur edo etiketa itxurarekin ematen dion informazioa ezagutzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Jangela, sarrera, irteera, bainugela, autobus geltokia, etab. adierazten duten ikurrak.</i> • <i>Ontziak eta produktuak diskriminatzea: jangarriak direnak eta jan ezin direnak.</i> • <i>Gelako eta etxeko ontzi desberdinak diskriminatzea: kutxak, botilak, poteak, paketeak, etab.</i> • <i>Ikastetxeko, jangelako, supermerkatuko eta abarreko sarrera eta irteera kokatzea.</i> • <i>Komunak kokatzea eta gizona emakumezkoenetatik bereiztea.</i> • <i>Autobus, tren nahiz metro geltokiak, telefono publikoak, etab, kokatzea.</i>
	<ul style="list-style-type: none"> • Piktogramak erabiltzen dituzten argibideak irakurri eta interpretatzea. • Produktuen zerrenda batekin erosketak egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Musika-kasetaren teklak ezagutzea, bideozintak ezagutzea, zereginen sekuentziak "irakurtzea" piszinara joateko, janzteko edo erantzeko, liburuskak, sukaldeko errezetak "irakurri" edo interpretatzeko, telefonoa erabiltzeko, etab.</i> • <i>Ohiko produktuen etiketak ezagutzea. Ontzien etiketak erosketak egiteko erabiltzea.</i>

Tebetasuna	Tebetasun alternatiboa	Ihardueren adibideak
<p>2. Matematika. Dirua kontatu eta erabiltzea.</p> <p>3. Komunikazioa. Hitz erabili gabe pertsonari eskaerak egitea: premia pertsonalei, produktuei, zerbitzuei eta abarri buruzkoak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zenbateko zuzenak erabiltzea • Txartelak erabiltzea • Produktuak erosteko zenbaki-lerroak • Kalkulagailua erabiliz zenbait produktu erostea • Komunikazio-koadernoak • Aurrez finkatutako idatzizko eskariak • Idazketa-lamina • Gaitasun gehiago dituzten kideen laguntza. 	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Produktu jakin bat erosteko diru nahiko duten txanpon-pakete txikiak desberdintzea. Pakete bakoitza erosten duen produktuari dagokion marrazkiarekin markatuko da.</i> • <i>Ordainketa jakin bat egiteko "nahikoa" diren txanponak eta bileteak ezagutzea. Adib.:100 pza. ogia erosteko, 25 txikle bat erosteko, etab.</i> • <i>Maiz erosten den produktu edo zerbitzu bakoitzarentzat egokiena den sinboloarekin identifikaturiko txartel batzuk egitea.</i> • <i>Freskagarrientzako txartelak, bonobusak etab. erabiltzea.</i> • <i>Produktu bat eros daitekeen edo ez kalkulatzen erakustea, duen dirua eta produktuaren balioa alderatzen duen zenbaki-lerroa erabiliz.</i> • <i>Zenbait produktu erosteko, kalkulagailuan kenketa erabiltzen erakustea.</i> • <i>Iharduera edo giro jakin baterako komunikazio orriak, ingurune hauetan ohikoak diren premiak adierazten dituzten hitzak edo sinboloak barneratuz.</i> • <i>Ikasleak egin behar dituen eskariak marrazki bidez jasotzen dituzten orriak edo oharak, adibidez jan nahi duen menua edo egin nahi duen iharduera.</i> • <i>Gehien erabiltzen diren hitzak, bai/ez partikulak, bere izena, etab. barneratzen duten orriak edo taulak.</i> • <i>Piktogramen bidez beren premiak interpretatzeko, ikastetxeko lekuak identifikatzeko, erraz ulertzen diren ikur grafikoak lantzeko, etab. gai diren kideekin lankidetzat.</i>

2. ANTOLAKETA-IRIZPIDEAK

📌 Ikaskuntzaren antolaketa ingurune ekologikoetan

Minusbaliotasun larriak dituzten ikasleen kasuan, hezkuntza-iharduera garatzen deneko testuinguruak duen garrantzia kontuan izaten duen eredu didaktiko bat aukeratzeko beharra planteatzen da, hezkuntza, eskuratzen diren ezagutzak ulertu eta ingurunean aplikatzera zuzenduta baitago.

Eredu Ekologikoak, garapen arazo larriak dituzten ikasleen irakaskuntzan eta ikaskuntzan ekarpen garrantzitsuak egiten ditu, eskola-esparrua hezkuntza-prozesua itxuratzen duten egoerak gertatzen direneko ekosistema gisa ulertzen baitu. Bat baino gehiago dira testuinguruaren garrantzia azpimarratzen duten egileak, beste batzuen artean Kemmis eta Mc Taggart, Doyle, etab. U. Bronfenbrenner ⁽⁴⁾ izenekoak *"heziketa guztiak ingurune batean gertatzen dira/.../ Ingurunea irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren testuingurua da; heziketarako aukera eta gaitasun jakin batzuk eragiten ditu eta muga nahiz murrizketa batzuk inposatzen ditu"*.

Egile hauek ematen duten ikuspegitik, hezkuntza-prozesua eskola-elkarteak eratzen duen giro ekologikoan eta bertan gertatzen diren elkarreraginetan gauzatzen da. Ondorioz, ikastetxea eta gelako bizitza, elementu material batzuk eta hezkuntzaren protagonista diren giza elementu batzuk elkarbizi eta elkarreragiten diren espazioa da; era honetan, ingurunean iharduera-prozesuen bidez burutzen den irakaskuntza-ikaskuntza iharduerak, elkartean (gelan nahiz familian, auzoan, ikastetxean eta beren geletan; liburutegian, jangelan, komunetan, gelan, patioan, etab.) funtzionatzean sortzen diren arazoak konpontzeko beharrezkoak diren trebetasunen garapena eragiten du.

Eredu Ekologikoak, ingurunean iharduera eta esperimendazio-prozesuak eskuratuz gauzatzen den eta minusbaliotasunak dituzten pertsonen, mugitzen diren elkarteko testuinguru desberdinetan sortzen zaizkien arazoei konponbidea bilatzeko gaitasunak garatzera zuzenduta dagoen zerbait bezala ulertzen du ikaskuntza.

Eredu honek, trebetasun funtzionalak bere testuinguru naturalean hobeto irakasten eta ikasten direla defendatzen du eta hau oraindik ziurragoa da ikasteko zailtasun handiak dituzten pertsonak direnean. Garapenaren atzerapen larriak eta sakonak dituzten ikasleen irakaskuntza-ikaskuntza, ikasitakoa orokortu eta beste egoera batean aplikatzeko zailtasunak baldintzatzen

⁽⁴⁾ BRONFENBRENNER,U. (1987): *La ecología del desarrollo humano*. Paidós. Barcelona.

du, beste gauza batzuen artean. Honek, eredu ekologikoa, giro edo testuinguru errealei buruzko ibilbideen itxurarekin garatzera bultzatzen du. Hauetan, bertan moldatzeko oinarrizko trebetasunak irakatsiko dira, egoera batean ikasitakoa antzeko beste batean aplikatzea errazagoa izan dadin.

Orokorrean, Gela Egonkorraren Curriculum-Proiektuak ikaskuntzaren aldagai ekologikoa ere jaso dezan, baldintza batzuk aipatzen dira. Ondorengo hauek dira:

- Curriculumak, ikaslea mugitzeko esparru edo domeinu desberdinak barneratu behar ditu: eskolan: liburutegia, gela, komunak, jangela, sukaldea, atsedendia, garraioak, etab., etxean, aisialdian, etab.
- Ikasleak gaur egun funtzionatzeko eta etorkizun hurbilean funtzionatzeko esparruak finkatu behar dira, bere integrazioa erraztu eta hobetuko duten trebetasunak diseinatu ahal izateko.
- Esparru eta giro hauetako bakoitzak osatzen dituzten azpi-inguruneak analizatuko dira. Adibidez: etxearen esparruan, sukaldea, bainugela, bere gela, etab. bezalako azpi-inguruneak barneratzen dira.
- Azkenik, azpi-ingurune bakoitzean beharrezkoak diren iharduerak nahiz iharduera bakoitzean garatu behar diren trebetasunak eta abileziak finkatuko dira. Adibidez: sukaldean fruta zuritzea, elikagaiak nahastea, arrautzak irabiatzea, mikrouhin-labe batean zerbait berotzeko etengailua piztea, etab. bezalako iharduerak burutzea. Elikagaiak zuritzeko mugimenduzko zenbait trebetasun eskuratu behar dira, hala nola: zenbait mugimendu fin koordinatzea, esku bakoitzarekin elementu bat hartzea, etab.

Teknika hau aplikatzearen adibide bat ondorengo hau izan daiteke:

Ingurunea: Jangela	Iharduerak	Gaitasunak edo trebetasunak
<p>Azpi-inguruneak:</p> <ul style="list-style-type: none">• Sukaldea (bazkaria prestatzea)• Jangela• Jangelako tresnen zona• Garbiketa zona (harraska, etab.)• Konketa eta bainugela• Besteak.	<ul style="list-style-type: none">• Elikagai solidoak jatea• Likidoak edatea• Jateko tresnak erabiltzea• Mahaia prestatzea• Mahaia jasotzea• Besteak.	<ul style="list-style-type: none">• Mahai-oihala jartzea.• Platerak mahaian jartzea.• Edalontziak jartzea.• Ezpain-zapiak jartzea.• Mahai-tresnak jartzea.• Besteak.

📌 Gelako eta ikastetxeko hezkuntza-ingurunearen antolaketa

Mugitzen garen ingurunea, garapen normala izan duen pertsona batek bere bizitzan zehar modu naturalean interpretatzen ikasten duen informazio ugaria eta anitza etengabe emateko moduan antolatzen da. Baina ez da hala gertatzen, ingurunea ulertu eta berekin komunikatzeko estrategia nahiko eskuratzen ez dituzten ikasleen kasuan bezala, garapen-prozesuan alterazio garrantzitsuak izan dituzten pertsonak direnean.

Nahaste sakonak eta orokorrak dituzten pertsonak, egunean zehar egingo diren iharduerak eta izango diren gertakariak nahiz beraiengandik itxaroten dena ezagutzeko zailtasunak dituzte eta ulertezintasun honek portaera-arazo ugari eragiten ditu gehienetan. Kasu hauetan beharrezkoa da ingurune fisikoa modu oso egituratuan diseinatzea, honela ikasleari, mugitzen deneko denbora eta espazioa egituratzen lagunduko zaionez eguneroko gertakariak *aurrikusteko gaitasuna* eskuratzea ahalbidetuko baitzaio.

Ingurunea antolatuz ikasleak “**gertakariei aurrea hartu eta haiek aurrikustea**” lortu nahi da, honela kokatzen deneko ingurunea ulertu ahal izan dezan, haiekiko eragina izateko

aukera izan dezan eta, berarengandik itxaroten den bezala, modu egokian moldatzeko gai izan dadin.

Ingurunearen egituraketa aipatzen dugunean bertako elementuak, estimuluak, erantzunak, subjektuak eta haiek mugitzen diren inguruneko eta HPBak dituzten ikasleen hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten inguruneko objektuak esan nahi dugu. Eskola-ingurunean nahiz familian, elkartean, eta beste testuinguru batzuetan moldatzeko erregela erabilgarriak ondorioztatzea ahalbidetuko dioten estimuluzko gakoek bidez (ikusmen bidezkoak, entzumen bidezkoak, ukimen bidezkoak, etab.) egindako espazioaren eta denboraren egituraketarekin, ingurunearen kontrola ekiditen duten oztupoak kentzea da asmoa.

Ingurunearen diseinua bi arlo nagusitan kontuan izatea iradokitzen da: alde batetik espazio fisikoa, gelak, bulegoak, komunak, jangelak, ikastetxearen gelak, etab. egituratzea ahalbidetuko dioten seinaleen bidez giro eta ingurune desberdinak nahiz espazioak diseinatzea; bestetik, denbora egituratu, antolatu eta desberdintzera zuzenduta egongo diren gakoak diseinatzea.

Bi alderdi hauek, espazioarena eta denborarena, elkarrekin harremanean daude eta oso garbi diseinatuta egon behar dute, ikasle batzuek egin behar dutenari, epe laburrean edo ertainean gertatuko denari, gertatuko den lekuari eta beraiengandik itxaroten denari buruzko informazioa aurrez jaso ahal izan dezaten eta horrela beren hurbileko ingurunearekiko etorkizunaren aurrikuspen eta planifikazio-aukerak sustatzeko. Ikasleari, egin duen ekintzari, egin duenari, geratzen zaionari, ondoren gertatzen denari eta abarri buruzko informazioa batera ematen dion sistema bat izan behar du (75-79. orrialdeetako eraskinak).

Ondorioz, ingurunea bi dimentsiotan antolatu eta egituratzea gomendatzen da:

- **Espazioaren antolaketa** ikasleek erraz uler ditzaketen eta haiei ingurunearekiko nolabaiteko kontrola izatea ahalbidetuko dieten gakoek bidez egiten da. Espazioaren antolaketarako erabil daitezke:
 - Piktogramak eta seinalestapenezko gakoak espazio desberdinetarako (gelak, bulegoak, komunak, jangela, bideo-aretoa, tailerrak, sukaldea, etab.)
 - Gela bakoitzerako ikur edo kartel bat nahiz hauetako bakoitzean dauden pertsonen argazkiak.
 - Gela desberdinetara iristeko bidea erakusten duten koloretako lerroak edo “velcro” zintak.

- Egin beharreko zereginarekin lotzen diren zona bakoitzeko berezko tresna eta materialen marrazkiak, garatzen duten ekintzari funtsa eta esanahia emateko. (ikus 75-79. orrialdeetako eraskinak)
- **Denboraren antolaketa.** Denbora antolatzeke, iharduneko ekintza nagusien sekuentziak erabil daitezke, sinboloen nahiz ikusmenezko edo entzumenezko gakoien bidez egin beharreko, egindako edo ondoren egingo diren ekintzetako bakoitza adieraziz. Adierazpen hauek, egindako iharduera bakoitzari dagokion marrazkia estaltzea bezalako ekintzen bidez erabiltzen dira; zeregina osatzen duten sekuentzien argazkiak dituzten agendak edo zeregin-liburuak erabiliz, adibidez, cola-cao bat prestatzea; ekintza jarraiak adierazten dituzten diktaketa grafikoen bidez; aurrez nahiz ondoren egingo denari buruzko edo eskatzen zaienari buruzko informazioa, etab. ematen duten sekuentzia-sailen bidez, etab. (75-79 orrialdeetako eraskinak)

3. IRIZPIDE METODOLOGIKOAK

📌 **Komunikazio-trebetasunen eta Gizarte-trebetasunen irakaskuntza**

Garapenaren Nahaste Orokortuak dituzten ikasleak ezaugarritzen dituzten zailtasunetako bat **KOMUNIKAZIO**-esparruaren garapena da, inguruneko gizarte-gakoak identifikatu eta ulertzen zailtasun garrantzitsuak ere barneratzen dituen zentzu zabalean.

Gizarte-ulermen nahikoa edo komunikazio-jokabidea izatera iristen ez diren ikasleen arazoa arrazoi desberdinekin lotuta dago. Arazoa, ahozko jokabide terminalean bertan edo aurreko komunikazio-prozesuko osagarri batzuk eskuratzerakoan gerta daiteke eta askotan bietan batera gertatzen da; ahozko lengoaiari dagozkion gaitasun-nahasteak, komunikatzeko edo gizartearekin harremanak izateko interes faltaren bidez azaltzen den komunikazio-prozesuaren aurreko garapenaren alterazio edo defizitekin batera gertatzen dira.

Komunikazio-minusbaliotasun larriak dituzten ikasleei arreta emateko, komunikazio-premia hauei arreta ematea ahalbidetzen duten antolaketa eta metodologia-mota erabili beharra dago. Kasu hauetan komunikazio-laguntzen erabilpena eta komunikazio-sistema alternatibo edo/eta handigarrien irakaskuntza planteatu beharra dago, pertsona hauei komunikatzeko eta gizartea ulertzeko estrategiak emateko. Beste pertsona batzuekiko elkarreraginerako trebetasunen eta gizarte-trebetasunen garapena eragiten duten irakaskuntzei lehentasuna emango zaie eta, ikastetxeko nahiz hurbileko ingurune naturalak aprobetxatuz komunikazio-trebetasun

espezifikoak irakatsi beharko dira, komunikatzen laguntzen duten metodoak eta sistemak erabiltzeaz gain.

Komunikatzeko asmoa izanik komunikazioa ahalbidetzen duten aurretiazko jarraipide batzuk eraginkorki garatu badituzte ere, ahozko kodeekin komunikatzeko zailtasunak edo ezintasuna duten ikasleei, kode desberdinak eskaini behar zaizkie eta honek helburu nagusienetako batean bihurtu behar du. Horretarako, marrazkiak, fitxak, objektuak, argazkiak, sinboloak, inprimitutako hitzak, etab. erabiliz adierazpen-forma desberdinak barneratzen dituzten adierazpen-sistemak edo sistema piktografikoak nahiz zeinu-sistemak erabiltzea egokia izan daiteke. Hauen artean daude BLISS, MAKATON eta SPC sistemak.

Ahozkoa ez den beste kode batzuk ere erakutsi behar dira, beti ere honen xede berarekin; komunikatzea, adieraztea, ingurunearekin elkarreraginak sortzea eta honen bidez hura aldatzea. Zentzu honetan, ezintasun larriena duten eta komunikazio-elkarreraginik ere ez duten haiekin ulergarria baino gehiago adierazgarria den lengoia bat sortzeko lan egin behar da, Benson Schaeffer⁽⁵⁾-en Erabateko Komunikazio-metodoak erakusten duen bezala, eta komunikazioa gehitzen duten laguntza teknikoak, adibidez teklatuak, argien bidezko edo entzuteko seinaleak, konmutagailuak, taulak, mezuak seinaleztatu edo hautatzeko gailuak, etab. erabiliko dira.

Metodo alternatibo edo handigarri bakoitzaren ezaugarriak eta hauek erabiltzeko eskakizunak kontuan izanez kode eraginkorra zein den erabaki aurretik, komunikazio-gaitasunen ebaluazioa eta balorazioa egin behar da, adibidez zeinu-sistemak garapen-maila baxuagoekin ere eskuratu daitezkeen bitartean adierazpen edo ikur-sistemak eskuratzeko garapen-maila altuagoa behar dela baitakigu.

Kasu guztietan, aukeratzen den komunikazio-metodoa kontuan izan gabe, Garapenaren Nahaste Orokortuak dituzten ikasleen irakaskuntzan gizartea ulertzeko **ikusizko laguntzak erabiltzea** ezinbestekoa eta bateragarria da.

Ikusmen bidezko laguntzek (argazkiak, sinboloak, grafikoak, piktogramak, etab.) hitzezko lengoaiak ez bezala, abantailak eskaintzen dituzte ikasle hauei dagokienez:

- gertakariei buruzko informazio egonkorra ematen dute.
- objektuei, pertsoneri eta ekintzei buruzko informazio zehatza ematen dute.

⁽⁵⁾ SCHAEFFER, B. (1993) *La mejora de la enseñanza del lenguaje para niños autistas*. En Actas del VII Congreso

Nacional de Autismo. Amarú. Salamanca.

- objektu errealean antza dute eta haiekin harremanean egon daitezke.
- hauek erabiliz egungo eta etorkizuneko gertakariak aurrizusteko ezagutzak eskuratzea eta espazioan nahiz denboran kokatzea ahalbidetzen da.
- jadanik gertatu diren iharduera eta gertakariei buruzko informazioa eskaintzen dute.

Ingurunea ulertzeko eta komunikatzeko eman daitezkeen ikusmen bidezko laguntzen adibide batzuk hauek dira: (75-79 orrialdeetako eraskinak)

- eguneko iharduerei buruzko ikusteko programa (1)
- txartelen bidezko ihardueren sailkatzaileak (2)
- lana antolatzeko koloretako taulak (3)
- banakako agendak (4)
- iharduera-egutegiak (5)
- ikusteko gidoiak eta irudi-liburuak (6)
- fase bakoitzaren irudiak dituzten zeregin-liburuak (7)
- objektuak edo irudiak dituzten lanerako gidoiak (8)
- egin beharreko zereginei buruzko hitzak (9)

📌 **Jokabide disruptiboak eta desafio-jokabideak**

Hezitzaileen, irakasleen eta familien kezka handienetako bat, minusbaliotasun psikiko garrantzitsuak dituzten ikasleek izan ditzaketen portaera desegokiak gutxitu daitezkeen lortzea da. Pertsona hauetan, komunikazio-trebetasun nahiko ez dituztenez, dituzten premiak nahiz gogoak komunikatzeko edo beraien aurkako egoera bat ekiditeko modu bihurtzen da sarritan beren portaera. Hau da, gainerakoekin dituzten harremanei dagokienez, arazo larriak eragiten dituzten eta ingurunean ongi integratzea zailagoa egiten duten portaera desegoki, jokabide agresibo eta autolesibo gisa azaldutako jokabide disruptiboek edo desafio-jokabideek gehienetan komunikazio-funtzioa betetzen dute.

Testuinguruaren aldagaiak garrantzi handia du desafio-jokabideen azalpenean. Honi buruz J.Tamarit⁽⁶⁾-ek egindako ekarpenek, ingurune-baldintzen eta jokabide disruptiboen artean harremana dagoela adierazten digute; autismoa edo beste komunikazio-nahaste garrantzitsu batzuk dituzten pertsonak testuinguru-baldintzekiko oso zaurgarriak dira, hau da, baldintza jakin

⁽⁶⁾ TAMARIT, J. (1995) Conductas desafiantes y autismo: un análisis contextualizado. En "Trastornos Profundos del Desarrollo". ASPANRI. Sevilla.

batzuek jokabide disruptiboak gehitzeko arrisku handiagoa eragiten dute. Era berean, zaurgarritasun-mailari egokitutako testuinguru egoki batek jokabidearen azalpen hauek inhibititu ditzake, ongizate eta egokitzapen pertsonal handiagoa lortzen lagunduz.

Ondorioz, hezkuntzaren esku-hartzeari begira eta ikasleak ingurune naturalean ikasten duela eta bere ikaskuntzak egoera batetik bestera transferitu ezin dituela kontuan izanez, lehen printzipioa, portaera-arazoak gertatzen diren lekuan eta unean bertan tratatzekoa izango da, arazo-mota hau ikaslea mugitzen den testuingurua ez den beste batean lantzea ezinezkoa dela ulertzen baita. Arrazoi honek, Gela Egonkorren Curriculum-Proiektuan hau kontrolatzeko eta tratatzeko egokienak diren metodoak eta iharduerak jasotzera bultzatzen du.

Hezkuntza-testuinguruan esku-hartzeko oso erabilgarria den jokabide-arazoak tratatzeko tekniketako bat "*portaeraren hipotesi funtzionala*" da. Honek, ikaslearentzan zailtasun gehien azaltzen dituen testuinguru-baldintzak zeintzuk diren analizatuz eta, ondorioz, testuinguruaren zein alderditan ihardun behar den adieraziz nahiz hauek aldatuz, esku-hartzeko aukerak finkatzea ahalbidetzen du.

Urrats metodologiko hauek jarraitzen dira:

- Jokabide-nahastea ebaluatzea.
- Ingurunea, eskatzen zaionari eta une nahiz leku bakoitzean egin behar duenari buruzko informazioa emateko moduan aldatzea.
- Pertsonaren gaitasunak aldatzea. Sarritan, minusbaliotasun psikiko garrantzitsuak dituzten pertsonak ez dute gizarteak onartutako gaitasun produktiboekin adierazteko ahalmen nahiko izaten eta ondorioz, hauen orde desegokiak diren beste portaera batzuk agertzen dira.
- Programazio Positiboaren Printzipioa erabiltzea, portaera desegokituaren funtzio bera egin dezaketen eta ondorio berak lortzea ahalbidetzen duten gaitasunak erakutsiz.
- Ingurunea ulertzeko, oinarritzko emozioak komunikatzeko eta ahal den neurrian jokabide-desegokitzapena ekiditeko komunikazio-tresnak eta trebetasunak erakustea.

3. Eskema: Gela Egonkorren Curriculo Proiektua egiteko Gida

1. Hezkuntza helburuak hautatzeko irizpideak		Zer irakatsi ?
⇒ Adina kontuan hartu	<ul style="list-style-type: none"> . interesak . lekuak 	<ul style="list-style-type: none"> . materialak
⇒ Nahastearen izaera kontuan hartu	<ul style="list-style-type: none"> . maizenik erabiliko dituen trebetasunak . ingurunean parte hartzeko beharrezko trebetasunak . sinpleak, gertuko garapen zonaren barnean 	<ul style="list-style-type: none"> . norberaren autonomia garatzeko duten trebetasunak
⇒ Ikaskuntza funtzionalak		<ul style="list-style-type: none"> . ingurune desberdinetan amankomunak diren trebetas. . eskola eta eskolaz-kanpoko eremuko trebetasunak . ikasi ondoren mantentzen diren trebetasunak
⇒ Ikaskuntzaren zentzu instrumentala		<ul style="list-style-type: none"> . ingurunearekin komunikatzeko tresnak irakatsi . ingurune fisiko eta soziala ulertzeko tresnak . laguntza tekniko egokituak
⇒ Hautabidezko trebetasunak	<ul style="list-style-type: none"> . eguneroko arazoak konpontzeko estrategiak 	<ul style="list-style-type: none"> . ingurunean autonomia lortzeko zuzenduak
2. Antolaketa irizpideak		Non, nola, norekin irakatsi ?
⇒ Ingurune ekologikoak erabili	<ul style="list-style-type: none"> . eremu desberdinak hartu: ikasgela, komuna, jangela, aisia . ikasleak parte hartu behar duen ingurunea finkatu . behar diren trebetasunak eta ekintzak finkatu 	<ul style="list-style-type: none"> . azpi-inguruneak aztertu
⇒ Gela eta ikastetxearen antolaketa	<ul style="list-style-type: none"> . espazioa antolatu: sinboloak, piktogramak... 	<ul style="list-style-type: none"> . denbora antolatu: egutegiak, agendak, sekuentziak ...
3. Irizpide metodologikoak		Nola irakatsi ?
	<ul style="list-style-type: none"> . ingurunearen ulermenerako trebetasunak 	

⇒ **Komunikazio trebetasunen irakaskuntza** . komunikaziorako ikusizko laguntzak:
klabeak, piktogramak...

⇒ **Desafio-jokabideak** . jokabidearen analisi funtzionala
. ingurunearen aldaketa

IV. GELA EGONKORRAREN CURRICULUM-PROIEKTUA LANTZEKO PROPOSAMENA

Ondoren, Garapenaren Nahaste Orokortuak dituzten ikasleentzako Gela Egonkorren Curriculum-Proiektuaren lanketa gidatuko duten orientabide jakin batzuk proposatzen dira. Proposamen edo adibide hau egoera hipotetiko batean oinarritzen da, hau da, Autismoa edo Garapenaren Nahaste Orokor bat duten ikasleen hezkuntza-premiei arreta ematen dion “ereduzko gela egonkor” bat duen ikastetxe bat hartu da. Ikastetxe arrunt baten iharduera orokorrean barneratutako Gela Egonkorren Curriculum-Proiektuaren lanketa izan daitekeenari buruzko adibide bat jartzeko asmoa duen proposamena da beraz.

Oinarrizko Curriculum-diseinua nahiz Gela Egonkorren Curriculum-Proiektua edo Programazioa lantzeko oinarri izango den eredu itxi bat da neurri batean. Egoera bakoitzak bere ezaugarriak ditu (adibidez, ikasleen adina, gela kokaturik dagoen ikastetxea, HPBak dituzten ikasleekin aurrez izandako esperientzia, etab.) eta planteatzen den Curriculum-Diseinuaren azken emaitzan eragina izateaz gain, egokitzapen zehatzak eta Curriculum-Proiektu propio bat eskatzen ditu.

Ondorioz, kasu honetan jarraitu beharreko urratsak, gogoeta-prozesua eta, ikasle-mota honetan tipikoak izan ohi diren hezkuntza-premien arabera, ikaskuntzak hautatzeko printzipioak aurkezten dira. Gela Egonkorren Curriculum-Proiektua eta Programazioa lantzeko arian-arian hartzen joan beharko diren erabakietarako irizpideak jasotzen dituen gida bat barneratzen da. Ereduzko egoera batetik eta aurreko kapituluaren deskribatutako oinarrietatik abiatzen da: ikasleen hezkuntza-premia larriak eta iraunkorrak, ikastetxe arrunt baten kokagunea eta talde honen irakaskuntza eta ikaskuntza-ezaugarrien arabera deskribatutako printzipio metodologikoak. Ondorengo faseak proposatzen ditugu:

1. AURRETIAZKO INFORMAZIOA. CURRICULUM-ERREFERENTZIAK

Talde honen HPBen eta hauen arazo berezien ezagutzaren ikuspuntutik egindako curriculum-iturrien analisiak, curriculum-a egokitzeko oinarritzko informazioa ematen du.

I. Epistemologikoa

*zein galdera egiten diogu geure buruari?
zein informazio ematen digu?*

- ikasle-taldearentzan zein edukin dira funtsezkoak?
- zein abstrakzio-maila eskatzen dute ikaskuntza jakin batzuk?
- zein ikaskuntza orokortzen da hobeto?
- zein urrats edo sekuentzia dituzte ikaskuntza-zeregin batzuk?
- zein ikaskuntza dira osagarriak bere curriculumean?
- zein arlo indartu eta egokitu behar da?

Proposamena

1. adin-tartea (6-12 urte)	2. adin-tartea (12-16 urte)
<ul style="list-style-type: none">• Ikaskuntza funtzionalak eta erabilgarriak• Ikaskuntza zehatzak• Sekuentzia gutxiko ikaskuntzak• Autonomia-trebetasunen eskuraketa• Komunikazio-trebetasunen eskuraketa• Norbere gorputzaren eta emozioen garapena• Oinarritzekoak diren zereginen analisia• Zereginen sekuentziazioa• Trebetasun alternatiboen ikaskuntza	<ul style="list-style-type: none">• printzipio berak <p>====> ingurunearen funtzionaltasun zentzua</p>

I. Pedagogikoa

*zein galdera egiten diogu geure buruari?
zein informazio ematen digu?*

- komunikazio-estrategiak nola erakutsi?
- ikusmen bidezko eta pertzepzio bidezko laguntzek zein ekarpen egiten dute?
- zein komunikazio-sistema alternatibo erabil daitezke?
- ikaskuntza orokortzen nola erakutsi?
- ikastetxeko ingurune arruntak nola erabili?
- edukinak nola ikasi ?

Proposamena

1. adin-tartea (6-12 urte)

- Ikastetxearen ingurune arrunta erabiltzea
- Ikaskuntza funtzionalak proposatzea
- Metodologia bereziak
- Ikusmen eta keinu bidezko laguntzak erabiltzea
- Komunikazio-sistema handigarriak
- Ingurunea egituratzea
- Informazioa ematen duen ingurunea
- Jokabide-kontrola erakustea
- Jokabidearen analisi funtzionala
- Akatsik gabeko Ikaskuntza-metodoa
- Beharrezko laguntza-motak ebaluatzea
- Curriculum-Egokitzapen oso esanguratsua
- Curriculum funtzionala

2. adin-tartea (12-15 urte)

- zereginen analisisia
- desadostasunen analisisia
- adinari egokitutako inguruneak

====> ingurunearen funtzionaltasun zentzua

I. Psikologikoa

*zein galdera egiten diogu geure buruari?
zein informazio ematen digu?*

- *zein premia berezi dituzte Gela egonkorreko ikasleek?*
- *zein da haien osasun-egoera, gaixotasun kronikoak al dituzte?*
- *nolakoa da haien garapen afektiboa eta emozionala?*
- *zertan datza bere ongizate fisikoa eta emozionala?*
- *egokitzapen edo/eta jokabide arazo larriak al ditu?*
- *ikasteko zein zailtasun du?*
- *zein gaitasun kognitibo daude gehien aldatuta eta zein gutxien?*
- *orokortzeko dituen arazoez zer adierazten digute?*

Proposamena

1. adin-tartea (6-12 urte)

- Ongizate fisikoa eta emozionala ematea.
- Aldarteak komunikatzeko estrategiak sustatzea.
- Ingurune fisikoa eta gizartea ulertzeko estrategiak sustatzea.
- Ingurunearekiko egokitzapen pertsonala sustatzea.
- "sentitzen" duen pertsona tratatzea.
- Autonomia pertsonala garatzea.
- "Izaki" kontzientea garatzea.
- Proposamen pertsonal eta esanguratsuak.
- Lortu nahi duenaren erabilgarritasuna.

2. adin-tartea (12-15 urte)

- printzipio berak

====> ingurunearen funtzionaltasun zentzua

I. Soziologikoa

*zein galdera egiten diogu geure buruari?
zein informazio ematen digu?*

- *zeintzuk dira hurbileko inguruneko lehentasunak?*
- *zein eskakizun bete behar dira gizartean "persona" izateko?*
- *zein dira familiak sarrien burutzen dituen iharduerak?*
- *zein ikaskuntza dira garrantzitsuak familiarentzat?*
- *nolakoa da bere ingurunea: landa, hiria, etab.?*
- *aisialdirako zein arreta-zerbitzu daude bere ingurunean?*
- *zein lan-iharduera burutzen dira bere ingurunean?*
- *zein ikaskuntza izango dira funtzionalenak bere ingurunean?*

Proposamena

1. adin-tartea (6-12 urte)

- Ikaskuntza funtzionalak eta erabilgarriak
- Helburuak eta edukiak: Autonomia izatea
- Komunikazio-trebetasunak eskuratzea
- Hurbileko ingurune arruntetan funtzionatzea: kalea, etxea, jangela, gela, etab.
- Aisialdiko eta denbora libreko zerbitzu komunitarioekiko koordinazioa

2. adin-tartea (12-15 urte)

- printzipio berak

====> ingurunearen funtzionaltasun zentzua

2. GELA EGONKORRAREN CURRICULUM-PROIEKTUAREN HELBURU OROKORRAK

Talde honek dituen hezkuntza-premia berezien ikuspegipean bildutako curriculum-iturriek emandako informazioak beren premietara egokitutako Gela Egonkorren Curriculum-Proiektuaren helburuak formulatzera bultzatzen gaitu. Egokitzapen hau egiteko ere, ikasleek alderdi fisikoei, kognitiboei, afektiboei eta psikosozialei dagokienez dituzten gaitasunak sustatzeko helburua duten Haur Hezkuntzaren eta Lehen Hezkuntzaren helburu orokorretan oinarritzen da. Garatu behar diren oinarritzko gaitasunak garapen-esparru desberdinetan taldekatzen dira. Hemen T.Mauri⁽⁷⁾ jaunak aipatzen dituenak proposatzen ditugu:

- Gorputzarekin, autonomiarekin eta nortasun pertsonalarekin zerikusia duten gaitasunak.
- Arazoak identifikatu, planteatu eta konpontzeko gaitasunak.
- Ingurune fisikoaren eta gizartearen ezagutza, balorazioa eta zaintzarekin zerikusia duten gaitasunak.
- Gizarte-harremanekin, araeukiko harremanekin eta pertsonen arteko elkarbizitzarako balioekin zerikusia duten gaitasunak.
- Kultur forma eta kode desberdinak erabiliz komunikatu, azaldu eta adieraztearekin zerikusia duten gaitasunak.

Proposatzen diren helburu orokorrek, eskolaketan zehar hezkuntza-premia larriak eta iraunkorrak dituzten ikasleek garatu beharreko gaitasunen garapena adierazten dute eta hezkuntza-iharduera ebaluatu eta planifikatzeko erreferentzi bat dira. Gaitasun hauek, esperientzia-esparru desberdinetan edukinak banatzean zehazten diren iharduera oso desberdinetan, gelaren programazioan, ikastetxeko ingurune naturalak erabiltzeko moduan eta bertan egiten diren ikaskuntzen programazioan, etab. jartzen dira agerian.

Gela Egonkorreko hezkuntzan esku-hartzeari dagokionez, ondorengo helburu orokorrak proposatzen ditugu:

⁽⁷⁾ MAURI, T. (1993). *Los contenidos escolares*. Aula de Innovación Educativa, 11. Graó. Bartzelona.

Proposamena: Gela Egonkorreko helburu orokorrak

1. Norbere gorputza ezagutu eta kontrolatzea, bere zaintzari eta higienerari dagokionez jarrera positiboa azalduz, bere osasunerako, higienerako eta ongizaterako oinarrizkoak diren ohiturak eskuratuz eta sendotuz.
2. Eguneroko bizitzako ihardueretan gero eta modu autonomoagoan ihardutea, iharduteko eta adierazteko dituen gaitasunak kontuan izanez eta haien arabera portatuz.
3. Beren portaera, beste pertsonak, arauak eta egoera bakoitzeko balioak kontuan izanez antzeman, kontrolatu eta artikulatzea, afektuari erantzunez eta gizarte-trebetasunak nahiz lankidetzak eta laguntza-jarrerak garatuz.
4. Oinarrizko harreman eta elkarbizitza-guneetan (familian, eskolan, bizilagunen artean, auzoan) gizarte-harremanak garatzea, gizarte-arauak eta gainerakoak errespetatzeko jarraipideak ikasiz eta beste gizarte-esparru batzuetara orokortu eta normalizatzen laguntzeko loturak finkatuz.
5. Beren oinarrizko premiak eta gogoak adieraztea, ingurunea ulertzea eta ulertuak izatea ahalbidetuko dieten hitzezko eta ez-hitzezko komunikazio-estrategiak garatzea.
6. Hurbileko ingurune fisikoak ezagutzea, objektuekin, gertakariekin eta egoerekin harremanak ezarriz, adierazpen-forma desberdinen bidez (jokoa, ikusmeneko lengoia, komunikazio-sistema alternatiboak, musika, lengoia plastikoak, etab.) adierazpena eta sinbolizazioa faboratuz.
7. Eskolako nahiz eskolaz kanpoko ihardueretan autonomia-maila altuagoak lortzea, eguneroko egoera ekimenez eta autonomiaz konpondu ahal izateko.
8. Hurbileko ingurune fisikoa behatu, arakatu eta ezagutzea, hura zaindu, errespetatu eta gozatzeko ohiturak eta jarrerak garatuz.
9. Beren inguruneko kultur adierazpen esanguratsuenetan aktiboki parte hartuz haiek ezagutzea.

3. ESPERIENTZIA-ESPARRUAK

Hezkuntza-esperientziak gertatzen diren esparru desberdinetan ikaskuntza-edukinak banatzea proposatzen da. Kasu honetan, etapan zehar eskuratzen ez badira, gizarteratzeko aukeretan eragin handia izango luketen arlo eta edukin haiei lehentasuna ematea esan nahi du egokitzapenak. Ondorioz, ongizate fisikoa eta emozionala nahiz gizarteratzeko aukerak gehitzeko garrantzitsuenak diren ikaskuntzak eta esperientziak aukeratuko dira.

Ondorengo proposamenean Curriculum Ofizialeko zenbait arlo kanporatzen dira eta ikaskuntzak, talde honen premietarako garrantzi gehiago duten esparruetan antolatzen dira. Ondorioz, arloetako helburuen eta ebaluazio-irizpideen egokitzapena eta berrantolaketa egiten da, garrantzi eta funtzionaltasun gehieneko edukinei lehentasuna emanez.

Aurrez aipaturiko hezkuntza-gaitasunen sailkapena jarraituz (43. or.) ondorengo esparruak proposatzen dira :

- 1. Nortasun pertsonala eta gorputz garapena**
- 2. Autonomia pertsonala eta arazoaren konponketa**
- 3. Ingurune fisikoaren ezagutza**
- 4. Gizarte-ingurunearen ezagutza**
- 5. Komunikazioa eta adierazpena**

Esperientzia-esparru hauetako bakoitzak bere ingurunean edukin jakin batzuk antolatzeko balio du. Talde honen hezkuntza-premien arabera nahikoa funtsatu den Curriculum funtzional baten aukerak, garrantzi gehien emango zaien edukinak prozedurazkoak izango direla esan nahi du eta ondorioz, ez da hiru edukin-moten sailkapen tipikoa egingo; irakaskuntza-ikaskuntzaren helburu diren funtzionaltasunak eta autonomiak, nagusiki prozedurazkoak diren edukinak dakartza berekin.

Ondorengo proposamenak, esparru handi hauetako bakoitzean barneratuko diren ikaskuntza-helburu eta edukinak iradokitzen dituen erreferentzia izan nahi du.

1. Nortasun Pertsonalaren eta Gorputz garapenaren esparrua

Esparruaren helburu orokorrak

Norbere gorputza ezagutu eta kontrolatzea, bere gaitasunak kontuan izanez
Eguneroko bizitzako ihardueretan inplikaturiko mugimen-trebetasunak garatzea
Oinarrizko osasun, higiene eta ongizate-ohiturak eskuratzea
Bere oinarrizko premiak antzeman eta identifikatzea
Bere portaera eguneroko egoera bakoitzaren arabera kontrolatu eta artikulatzea

Esparru hau ondorengo edukinei buruzkoa da:

Ondorengoekin zerikusia duten edukinak:

1. Gorputzaren ezaguera

Gorputzaren atalak ezagutzea: eskua, ilea, ahoa, sudurra, etab.
Ezaugarri pertsonal bereizgarriak ezagutzea: sexua, altuera, ilearen kolorea, lodiera, etab.
Bere gorputzaren irudiaz jabetzea: norbera ispilu aurrean, argazkian, etab. ezagutzea.
Gainerakoengandik desberdintzea: norbere izena, lekua, esperientziak etab. ezagutzea.
Gorputza marrazkian edo modelatuta adierazteko gaitasuna.
Norbere nortasun-ezaugarriak ezagutzea: izena, adina, ezaugarri pertsonalak, familiako kideak,
helbidea,
etab.

2. Norbere gorputzaren oinarrizko premien identifikazioa

Ukimenaren, ikusmenaren, usaimenaren, dastamenaren eta entzumenaren garapena.
Sentimenak eguneroko egoerekin lotzea: musika entzutea, argazkiak ikustea, elikagaiak usaintzea, sentsazioak (beroa, gosea, logura, nekea, etab.) eskola-iharduneko iharduerekin edo/eta eguneroko egoerekin identifikatzea.

3. Sentimenduen eta emozioen identifikazioa:

Plazerra/mina, farra/negarra, poza/haserrea sentsazioak identifikatzea.
Emozio hauek gertatzen direneko egoera naturalekin lotzea.

4. Mugimenduaren eta zentzumen/mugimenduzko nahiz gorputz bidezko jokoaren garapena.

Pertzepziozko eta mugimenduzko trebetasunen garapena; lau hankatan ibiltzea, laguntzarekin ibiltzea, autonomiaz ibiltzea, igotzea, jaistea, korrika egitea, jauziak egitea, bira ematea, etab.
Espazioan autonomiaz lekualdatzea; gora, behera, barrura, kanpora, azpian, aurrean, atzean, hurbil, urrun, alde batera.
Jolas-egoeretan eta eguneroko bizitzan norbere gorputzak dituen mugimendu-aukerak arakatzea.
Arazoak konpontzerakoan mugimen-trebetasunak erabiltzea: atea zabaldu, zerbait lortzeko eskailerak igotzea, jolasteko jauziak egitea, etab.
Gorputzaren nahiz afektuen erritmoa eguneroko bizitzako sekuentzia eta ohituretara egokitzea.
Mugimenduzko trebetasun berriak eskuratzea inplikatzeko duten gorputzaren kontrola eta koordinazioa eskuratzea: lekualdatzea, objektuak eta lekuak arakatzea, joko fisikoak, pelota jokoak, jolasteko objektuak erabiltzea, trizikloa edo bizikleta bat erabiltzea, igeri egitea, patinetan ibiltzea, etab.

5. Manipulazio-trebetasunen koordinazioa eta kontrola eta tresna amankomunen erabilpen zuzena

Objektu eta tresna txikiak zuzen erabiltzea: arropa-martxadak, botoiak, kremaailerak, puntzoia, guraizeak, arkatza, grapagailua, etab.
Iharduera ludikoetan beharrezkoak diren mugimenduetan zehaztasuna eta kontrola eskuratzea: fitxak sartu, kartak edo fitxak banatu, piezei bira eman, etab.
Eguneroko ohituretan ekintzak arakatu edo exekutatzeko beharrezkoak diren mugimenduen kontrola eskuratzea; giltzaz ireki, kutzak itxi, ontziak ireki, seiluak pegatu, kartazalak itxi, etab.

6. Denborarekin eta espazioarekin harremana duten bizipen pertsonalak eskuratzea

Lo egiteko ordua, eskolara joateko ordua, jateko ordua, jolasteko ordua, etxera itzultzeko ordua, etab. desberdintzea
Oinarrizko bizi-esperientziak gertatzen diren lekuak eta uneak desberdintzea; elikadura, atsedena, loaldia, higiene, jokoak, ikaskuntza, etab.
Bizipen hauek, gertatuko dena aurrizteko ahalbidetuko dioten kartel edo sinboloekin lotzea.
Egoera hauetan autonomia emango dieten komunikazio-estrategiak garatzea.
Norbere lekualdaketa denboraren aldagaiarekin lotzea: orain, azkar, motel, bizkor, poliki; laster, etab.
Norbere lekualdaketa espazioaren aldagaiarekin lotzea; hemen, han, urrun, hurbil, barruan, etab.

7. Eguneroko bizitzarekin harremana duten erritmoak eskuratzea

Giro-aldaketak onartu eta haurtara egokitzea.

Familiako ohiturekin zerikusia duten ekintzak identifikatu eta burutzea.

Eskolan finkaturiko ohiturekin zerikusia duten ekintzak identifikatu eta burutzea.

Esperientzia pertsonalarekin lotuta dauden zereginak edo mandatuak egiteko interesa..

8. Gorputzaren bidez objektuak ezagutzea

Sentimenen bidez objektuak arakatzea: usaimena, dastamena, entzumena, etab.

Objektuekiko jakinahia garatzea eta hauek nahiz beren funtzionamendua arakatzegatikoko interesa azaltzea.

Objektuak modu konbentzionalean eta ez-konbentzionalean erabiltzea eta manipulatzeko: arranbera, koilara, sardeska, zorrozka, eskula, bizarra mozteko makina.

2. Autonomia Pertsonalaren eta Arazoek Konponketaren esparrua

Esparruaren helburu orokorrak

Eguneroko bizitzako ihardueretan autonomiaz eta independentziaz ihardutea
Bere oinarriko premiak aktiboki Antzeman, Identifikatu eta Konpontzea
Eskolako eta eskolaz kanpoko ihardueretan arian-arian autonomia lortzen joatea
Bere eguneroko bizitzan ohikoak diren egoerak ekimenez eta autonomiaz konpontzea
Bere inguruneke iharduera normalizatueta aktiboki parte hartzea

Esparru hau ondorengo edukinei buruzkoa da:

Ondorengoekin zerikusia duten edukinak:

1. Esfinterrak kontrolatzeko ohiturak eskuratzea

Esfinterrak kontrolatzeko beharrezko trebetasunak eskuratzea: noiz joan behar duen, itxoiten jakitea, bainugelak bakarrik sartzea, galtzak jaistea, komuna erabiltzea, komuneko papera erabiltzea, etab. Esfinterrak kontrolatzeko beharrezkoak diren komunikazio-trebetasunak garatzea. Komuna autonomiaz eta independentziaz erabiltzea.

2. Higiene pertsonaleko ohiturak eskuratzea

Garbitasunarekin zerikusia duten trebetasunak garatzea: eskuak lehortzea, eskuak garbitzea, aurpegia garbitzea, orraztea, mukiak kentzea, hortzak garbitzea, bainatzea, ilea garbitzen laguntzea, etab. Garbitasun pertsonalerako tresnak funtzionalki erabiltzea: eskuoihala, iturria, xaboa, orrazia, mukizapia, eskuila, bizarra mozteko makina, ile-lehorgailua, etab.

3. Jantzeko eta erantzeko ohiturak eskuratzea

Eranzteko trebetasunak irakastea: jaka, oinetakoak, galtzetina, galtzak, gona, jertsea, alkondara, kuleroak, etab. Jantzeko trebetasunak irakastea: jaka, oinetakoak, galtzetina, galtzak, etab. Jantzeko eta erantzeko beharrezkoak diren trebetasunak garatzea: kremailerak, velcroak, kortxeteak, korapiloak, lazoak, etab. erabiltzea.

4. Elikadura-ohiturak eskuratzea

Jateko tresnak funtzionalki erabiltzea: koilara, sardeska, ezpainzapia, mahai-oihala, erretilua, etab. Jangela erabiltzeko ohiko arauak eta jarraipideak eskuratzea: amaitu arte ez altxatzea, erretiluan zerbitzatzea, edalontzia erabiltzea, etab. Elikatzeko oinarriko trebetasunak eskuratzea: mastekatzea, edalontzitik edatea, koilararekin jatea, sardeska erabiltzea, labanaz moztea, etab.

5. Lan egiteko eta ongi portatzeko ohiturak eskuratzea

Arreta-jokabideen garapena: ikusmen bidezko kontaktua egitea, ikusmenaren bidez egoera esanguratsuetan arreta jartzea, objektuak ikusmenaren bidez jarraitzea, deitzen zaionean arreta jartzea, soinuei arreta jartzea, etab. Egin beharrek ihardueraren arabera jarrera zuzena eskuratzea. Zeregin berean lanean edo eserita egon daitekeen denbora arian-arian gehitzen joatea. Iharduera batekiko arreta-maila arian-arian garatzea. Agindu sinpleei arreta jarri eta erantzutea: bere izenari erantzutea, etorri, begira, eman, eseri, gorde, etab.

6. Autozaintzarako ohiturak garatzea

Gorputzaren garbitasunerako ohiturak eskuratzea: higiena, bizarra moztea, zaintza pertsonala, etab. Ohiko medikamentuak kontrolatu eta administratzeko autonomia garatzea. Ura, sua, guraizeak edo labana bezalako objektu zorrotzak, su elektrikoa edo gasezkoa, etab. erabiltzeko trebetasunak garatzea. Eguneroko bizitzan arriskutsuak izan daitezkeen egoerak identifikatzea. Larrialdiko egoerak ezagutzeko komunikazio-estrategiak garatzea: sirenak, txirrinak, argiak, alarmak, etab. Helduei arrisku-egoeren berri ematea ahalbidetzen dioten komunikazio-estrategiak garatzea.

7. Eguneroko ohituretan funtzionamendu autonomia eskuratzea

*Norbere portaera erregulatzea: txandak itxoitea, biltzea eta ordenatzea, materialak zaintzea, ilaran egotea, sartzeko eta irteteko espazioak errespetatzea, etab.
Giro-aldaketak ezagutzea eta haietara egokitzea.*

8. Oinarrizko arazoak konpontzeko trebetasunak garatzea

*Bere oinarrizko premiak ezagutzera emateko komunikazio-estrategiak eskuratzea.
Inguruneko informazioa komunikatu eta ulertzeko estrategiak: jangela, komunak, sukaldea, garbigela, etab.
Ingurunea zaintzeko eta ikastetxearen gelak garbitzeko trebetasunak eskuratzea: ureztatzea, eskobatzea, etab.*

9. Etxeko zereginak burutzeko trebetasunak garatzea

*Etxeko zereginekin zerikusia duten trebetasunak garatzea: mahaia jarri eta kendu, platerak garbitu eta lehortu, arropa iseki, eskobatu, garbigailua bete, aspiragailua pasa, mikrouhin-labea jarri, etab.
Elikadurarekin zerikusia duten trebetasunak garatzea: sukaldean laguntzea, ogitartekoak prestatzea, cola-cajo prestatzea, ogia mantekilaz estaltzea, entsalada prestatzea, elikagaiak zuritzea, irabiatzea, nahastea, etab.
Elektragarriak egokiro erabiltzea: garbigailua, mikrouhin-labea, aspiragailua, lehorgailua, irratia, telebista, izozkailua, etab.*

10. Aisialdi inguruneetan autonomia-trebetasunak garatzea

*Parke eta lorategietan joko-elementuak erabiltzea: zabua, bizikleta, harea, ura, etab.
Espazio itxietan jokoak erabiltzea: damak, partxisa, kartak, etab.
Aisialdia erabili eta gozatzeko trebetasun funtzionalak: zinema, kafetegia, jatetxea, mendian ibilaldia, etab.*

11. Kaleko ingurunean autonomia izateko trebetasunak garatzea

*Garraioak erabiltzeko trebetasunak.
Komunikabideak erabiltzeko trebetasunak: telefonoa, posta, etab.
Inguruko dendak erabiltzeko trebetasunak.
Dirua erabiltzeko trebetasunak.
Bideen eta norbere segurtasunerako ohiturak garatzea.*

3. Ingurune fisikoaren ezagutzaren esparrua

Esparruaren helburu orokorrak

Hurbilen duen ingurune fisikoa behatu, arakatu eta ezagutzea
Inguruneko objektuak, beren ezaugarriak eta funtzioak ezagutu eta arakatzeari
Ingurunean ohikoak diren gertakariak eta egoerak ezagutzea
Ingurunearen zaintza, errespetu eta gozamen-jarrerak garatzea
Hurbileko ingurunean autonomiaz moldatzen ikastea
Portaera, inguruneko arauak eta balioak kontuan izanez artikulatzea

Esparru hau ondorengo edukinei buruzkoa da:

Ondorengoekin zerikusia duten edukinak:

1. Ikastetxeko gelen ezaguera funtzionala

Gela, komunak, patioa, jangela, sukaldea, tailerra, liburategia, idazkaritza, etab, kokatzea.
Gela bakoitzeko materialen antolamendua, erabilera eta helburua ezagutzea, burutzen diren zereginen argazkiekin edo marrazkiekin erraztuz.
Gela hauetan mugitzeko orientazio espaziala eskuratzea.
Hurbileko ingurunean portaera autonomoa garatzea: mezuak eramateko, objektuak garraiatzeko, etab.
Gela hauen erabilera funtzionala eta egokia: janariak sukaldean prestatu, liburategian liburuak ikusi, patioko zabuan ibili, etab.

2 Hurbileko habitat naturalaren ezaguera funtzionala

Ikastetxearen inguruak erabiltzea: lorategiak, azoka, zinema, antzokia, etab.
Ibilbideen bidez ingurune naturala erabiltzeko estrategiak eskuratzea: kalea gurutzatu, azokan eta erostetxe handietan zehar ibili, semaforoa nahiz autobus geltokia ezagutu, autobusera igo eta bertatik jaitsi, etab.
Hurbileko ingurugiroan funtzionamendu autonomoa eskuratzea.
Klimaren nahiz ingurune fisikoaren aldaketak antzematea: eguzkia, euria, lainoak, haizea, etab.
Egoera klimatikoa objektuekin edo ekintzekin lotzea: euria ari du, busti egingo gara, aterkia nahiz botak erabiliko ditugu, etab.
Eguraldiaren adierazle diren seinale grafikoak identifikatu eta erabiltzea (hormirudiak).

3. Hurbileko paisajearen esku-hartze egokia

Iharduera garatzen deneko espazioaren zaintza eta errespetu-ohituren eskuraketa: biltzea, ordenatzea, jangelako arauak errespetatzea, etab.
Ikastetxeko gelei, auzoari, lorategiei eta abarri dagokienez, errespetu, garbitasun eta zaintza-jarrerak eskuratzea.
Landareak eta animaliak zaintzen ikastea: ureztatu, kimatu, joratu, ongarritu, etab.
Bere ingurunean garrantzitsuak diren landareak eta animaliak ezagutzea.
Paisajearen ezaugarri nabarmenenak asoziatu eta sailkatzea: kolore eta forma bereko loreak, zati azpimarragarrienak, igeri egiten duten animaliak, hegan egiten dutenak, etab.

4. Bere inguruneko pertsonen ohiko ihardueren identifikazioa

Ikastetxeko pertsonen ohiko iharduerak eta lekuak identifikatzea.
Pertsonak eta burutzen dituzten zereginak identifikatzea: kale garbiketa, gutunen banaketa, garraioa, etab.
Elkarteko zerbitzuak identifikatzea: okindegia, supermerkatua, zapata-denda, etab.
Segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten zerbitzuen identifikazioa: suhiltzaileak, ospitalak, farmazia, etab.
Zerbitzu desberdinak erabili eta gozatzeko funtzionamendu autonomoa eskuratzea.

5. Inguruneko komunikabideen erabilera eta ezaguera funtzionala

Telefonoa erabiltzea: norbere zenbakia ikastea, deitzen ikastea, etab.
Garraioak erabiltzea: bere autobusa identifikatzea, ohiko ibilbideetan bere etxetik hurbil dagoen autobusa erabiltzea.
Informazioa jasotzeko bideak funtzionalki erabiltzea: telbista, irratia, egunkariak, etab.
Bide-segurtasunerako oinarrizko arauak; espaloia aldatzea, semaforoak errespetatzea, oinezkoen pasabideak, etab.
Inguruneko arrisku-faktoreak ezagutzea: entxufeak, arantzak, sua, kalea igarotzea, etab.

6. Objektuak arakatu eta ezagutzeagatiko interesaren garapena:

Hurbileko objektuak arakatzegatiko interesa eta jakinahia.

Ingurune objektu-mota desberdinak eta beren ezaugarri fisikoak ezagutzea: kolorea, forma, ehundura, propietateak, etab.

Objektuak behatu eta beren ezaugarrien eta eguneroko bizitzan dituzten funtzioen arabera sailkatzea: garbitasunekoak, janztekoak, animaliak, jaten direnak, pisatzen dutenak, etab.

Objektuak erabiltzerakoan dauden arriskuen balorazioa; zorrotzak, ebakitzailak, entxufeak, ur beroa, berogailua, etab.

7. Ingurune naturalako gizarte-formen ezaguera:

Denborazkoak: lehen, ondoren, gaur, bihar, asteke egunak, jai egunak, urteko aroak, etab.

Gertakari garrantzitsuak: oporrak, Gabonak, udaberri-eguna, hosto-eguna, urtebetetzeak, Ihauteriak, etab.

Ohiturak, folklorea eta kultur adierazpenak: ihauteriak, San Blas, Santa Ageda, Olentzero, etab.

4. Gizarte-ingurunearen ezagutzaren esparrua

Helburu orokorrak

Norbere portaera antzeman, kontrolatu eta artikulatzea besteei kontuan izanez
Egoera bakoitzeko arauak eta balioak ezagutu eta haietara egokitzea
Gizartea ulertzeko estrategiak garatzea: besteak, beren iharduera, etab.
Beste pertsonetikiko harremanak dituenen ongizate emozionala izatea
Ingurune normalizatu batean besteekiko harreman sozialak garatzea
Normalizazioari mesede egiten dioten gizarte-trebetasunak eta loturak finkatzea
Gizarte-trebetasunak beste harremangune batzuetara orokortzea: familia, lagunak, etab.
Elkarteko kultur iharduerak ezagutu eta haietan parte hartzea
Afektuari erantzutea eta lankidetzajarrerak garatzea

Esparru hau ondorengo edukinei buruzkoa da:

Ondorengoekin zerikusia duten edukinak:

1. Gizarte-elkarreragina

*Eskakizun elkarreragileen garapena: begi bidezko kontaktua ezartzea, ikusmeneko arreta, kontaktu fisikoa onartzea, kanta mimikoak, etab.
Alternantziatzako eta aurrerapenezko joko zirkularrak garatzea: ku-ku, txaloak, eragiozu, txorro, etab.
Joko elkarreragileen garapena: kilimak egin, pelota bota, eragiozu, jauzi eta hartu, etab.
Alternantziatzako iharduera eta jokoetan txandak hartzeko ohitura eskuratzea.*

2. Gizarte-harremana eta elkarbizitza-arauak

*Bere inguruneke pertsonak eta senideak izenez ezagutzea.
Ezagutzen dituen espazioak bertan lan egiten duten pertsonekin lotzea, kartelak, marrazkiak, etab. erabiliz.
Eguneroko egoeretan keinuen eta hitzen bidez agurra erabiltzea.
Eskatzeko, deitzeko, eskerrak emateko, etab. hitzak edo keinuak erabiltzea.
Pertsonak eta objektuek beren ohiko espazioetan jasaten dituzten aldaketak eta aldatzioak antzematea.
Giro-aldaketak onartu eta haietara egokitzea nahiz egoera desberdinetara egokitzen den portaera garatzea.
Pertsona heldua beste zeregin batean edo beste ikasle batzuekin dagoenean ihardueren artean sortzen diren transizio edo itxoite-denborak onartzea.*

3. Objektuen ezaguera, interesa eta erabilera soziala

*Objektuak gainerako pertsonetikiko elkartrukaketa sozialetan erabiltzea.
Objektuak eskatzeko, errefusatzeko, azaltzeko, etab. komunikazio-estategiak garatzea.
Norbere ekintzek eta besteek, objektuen gainean dituzten eraginak aurrikustea: hautsi, bete, lerrokatu, estali, etab.
Jokorako objektuak ezagutu eta erabiltzea.
Besteekiko jokoetako objektuak ezagutu eta erabiltzea.
Norbere objektuekiko edo besteekikiko errespetua izateko eta zaintzeko ohiturak garatzea.
Familia-inguruneke eta eskolako objektuak elkarbanatzeko aukeraren aldeko jarrerak garatzea.*

4. Pertsonengatiko interes soziala

*Gizarte-egoera arruntak eta erantzun zuzenak ulertzea.
Norbere buruan eta besteengan oinarritzko emozioak ezagutzea: haserrea, poza, negarra, farrea, etab.
Aurpegiaren adierazpenak barneke aldarteekin identifikatzea: farrea, samina, poza, haserrea, etab.
Iruzur-egoerak ezagutzea.*

5. Joko sinbolikoa

*Jostailua funtzionalki erabiltzea, trizikloarekin edo baloiarekin, etab. jolastea.
Errealitateke egoerak simulatu eta imitatzea, adib. jaten ematea, lotara joatea, erortzea, medikuarena joatea, erosketak egitea, telefonoz deitzea, etab.
Objektuekin nahiz objekturik gabe fikzioko jokoekin laguntza ematea.
Ekintzak simulatzeko gaitasunak garatzea: edan, orraztu, jan, lo egin, irakurri, etab.
Objektu errealean ordezkoeke ekintza sinbolikoak egiteke gaitasuna garatzea.
Sekuentzia konplexuak imitatzea.
Txontxongiloekiko interesa garatzea.
Txontxongiloko pertsonaiak identifikatu eta egoera egokietan erabiltzea.*

6. Jokoa besteekin

Normalizatutako jokorako jarraipideak eskuratzea.

Patioan taldeko jokoetan parte hartzea: korroa, trena, soka, uztaia eta makila, baloia, etab.

Gelan egindako taldeko jokoetan parte hartzea: aulkien jokoa, korroa, mahai-jokoak, kromoak, antzara-jokoa, partxisa, etab.

Animalien, janarien, ibilaldien, autobusean ibiltzearen, erosketak egitearen, eta abarren dramatizazioa.

7. Elkarrearen egoera eta adierazpen kulturalak ezagutzea eta haietan parte hartzea

Lagun baten urtebetetzea, anai baten jaiotza, etab.

Festa tradizionalak.

Kantak, dantzak.

5. Komunikazio eta adierazpen esparrua

Helburu orokorrak

Ulertzea eta ulertua izatea ahalbidetzen duten hitzeko nahiz ez-hitzeko komunikazio-estrategiak garatzea
Oinarrizko premiak, pentsamenduak eta sentimenduak adieraztea
Normalizazioari mesede egiten dioten gizarte-harremanak eta trebetasunak finkatzea
Lengoaia desberdinen bidez adierazpena eta sinbolizazioa bultzatzea

Esparru hau ondorengo edukinei buruzkoa da:

Ondorengoekin zerikusia duten edukinak:

1. Komunikazio-gaitasunen garapena

Objektuak ezagutu, arakatu eta haiekin harremana izateko gaitasunak garatzea.
Aurre-hartze eskemak sustatzeko eguneroko ihardueren ohitura ziurtatzea.
Estimulu sentzorialak (ikusmenezkoak, ukimenezkoak, entzumenezkoak, etab.) iharduerekin lotzea
Aurre-hartze eskemak erabiltzea: entzumen bidezko seinaleak, sirenak, musika, ikusmen bidezkoak: koloreak, argiak, etab.
Komunikazio-trebetasunen garapena. Gogoak eta premiak adierazi eta eskaerak egitea (Protoinperatiboak).
Helburu sozialak dituzten objektuak erabiltzeko gaitasunak garatzea (Protodeklaratioak).

2. Oinarrizko komunikazio-trebetasunen garapena

Premiak, gertakariak eta gertaerak hitzeko Komunikazio-sistemen bidez adieraztea.
Premiak, gertakariak eta gertaerak ez-hitzeko Komunikazio-sistemen bidez adieraztea: zeinu bidezko hizketa, erabateko komunikazioa, piktogramak, etab.
Komunikazio-sistema alternatiboan edo/eta handigarrien garapena.

3. Lengoaia ulergarriaren garapena

Familiako objektu eta ekintza esanguratsuak identifikatzea.
Objektuei eta pertsonari dagozkien irudiak identifikatzea.
Sekuentzia motzetan argibide sinpleak jarraitzea.
Sinbolo piktografikoen, argazkien eta abarren bidez esaldi sinpleak egitea.

4. Lengoaia adierazgarriak garatzeko gaitasunak eskuratzea

Artikulazio eta arnasketa-gaitasunak garatzea.
Trebetasunak garatzea: mugimenezkoak, aho-aurpegiari dagozkionak, adierazpen onomatopeikoak, etab.
Soinuak, silabak, hitzak etab. imitatzea.

5. Lengoaia adierazgarriaren garapena

Gizarte-arauak funtzionalki eta zuzen erabiltzea (kenuzkoak eta ahozkoak).
Pertsonak, animaliak, objektuak eta ekintzak ahoz edo keinuz ezagutzea.
BAI edo EZ partikulak funtzionalki erabiltzea keinuzko edo ahozko lengoaien bidez.
Oinarrizko premiak adieraztea, laguntza eskatzea, gogoak edo sentimenduak adieraztea, informazioa ematea, etab.
Esaldi sinpleak (subjektua+aditza+objektua) zentzu funtzionalarekin eta egoera egokietan erabiltzea.
Mota hauetako esaldi sinpleak funtzionalki erabiltzea: baiezkoak, ezezkoak, galdezkoak, etab.

6. Irakurtzen eta idazten hasteko kode grafikoak edo idatzizkoak eskuratzea

Irudiak eta sinboloak komunikatzeko, informatzeko eta gozatzeko bide gisa erabiltzea eta ezagutzea.
Liburuak, marrazkiak, ipuinak, komikiak, etab. informazioa transmititzeko erabiltzea.
Sinboloak, marrazkiak, piktograma sinpleak eguneroko objektuekin edo egoerekin lotzea.
Irudien interpretazioa; objektuak, pertsonak eta ekintzak kokatu eta ezagutzea.
Gertakari baten, mezu baten edo ipuin baten kontaketa arreta jarri eta ulertzea.
Mezu sinpleak transmititzeko piktogramak edo sinbolo sinpleak erabiltzea.
Moldatzen diren ingurunean esanguratsuak eta funtzionalak diren hitzak pertzepzioaren eta ikusmenaren bidez irakurtzea.
Adierazteko piktogramak, hitzak edo esaldiak egitea.

7. Adierazpen plastikoaren garapena

Produkzio plastikorako materialak arakatu eta erabiltzea: buztina, plastilina, hirina, tenpera, argizariak, etab.

Adierazpen grafikoaren garapena: trazuari buruzko orientabideak, grafika ez-figuratiboaren hastapenak, etab.

Manipulazio-tekniken eta trebetasunen eskuraketa: pegatzea, urratzea, zimurtzea, etab.

Oinarrizko teknika grafikoak eskuratzea: marrazketa, pintura, modelatua, collagea, etab.

Kolore primarioak antzeman eta desberdintzea.

Material plastikoak zaintzeko ohiturak eskuratzea.

Norbere lan plastikoak eta besteenak errespetatu eta gozatzeko jarrerak eskuratzea.

8. Adierazpen musikalaren garapena

Hotsa, soinua eta musika antzeman eta desberdintzea.

Inguruneko soinuak eta egunero erabiltzen diren objektuen soinu-propietateak identifikatzea.

Naturako soinuak ezagutu eta imitatzea.

Gertakariak eta gertaerak aurrikustea ahalbidetuko dioten entzumenezko seinaleak eguneroko egintzekin lotzea.

4. INGURUNE NATURALAK ETA IKASKUNTZA-IHARDUERAK

Eguneroko ingurunea, ikastetxeko espazioak eta ingurune naturalak, bertan moldatzeko beharrezkoak diren trebetasunen eta abilezien ikaskuntza garatzeko aprobetxatzeak duen garrantziari buruz egin diren erreferentziak ugariak izan dira. Aurreko esparruetan aipatu diren edukinak, hezkuntza-ihardueran modu naturalean garatzen den ingurunean eta azpi-inguruneetan ere programatu daitezke (jangelan elikadura-trebetasunak, garbitasun eta higie-ne-trebetasunak komunetan, etab.).

Eredu hau azken muturreraino eramanez, ikaskuntza-inguruneen inguruan guztiz antolaturiko Gela Egonkorren Curriculum-Proiektu batean ondoriozta daiteke. Praktikan, eredu honen aldeko aukera egiteak ez du derrigorrez iharduera guztia gelaz kanpo, ingurune hauetako bakoitzean burutu behar denik esan nahi; proposamen mistoak ere aukera daitezke, ingurune desberdinak gelako espazioarekin konbinatzen dituztenak eta programazioan hala islatzen dutenak alegia.

Zentzu honetan ikastetxearen azpi-inguruneen analisi bat egin eta esanguratsuenak direnak aukeratu ondoren, ikaskuntza haietan burutzea proposatzen da, ikasleak trebetasun jakin batzuk eskuratzeko duen interesean eta eskola-inguruneak berak eskaintzen dituen baldintzetan oinarrituz. Bigarren une batean, ingurune jakin horretan autonomiaz eta modu eraginkorrean moldatzeko irakatsi eta eskuratu beharko diren edukinak, prozedurak, trebetasunak eta abileziak programatu eta banatuko dira. Azkenik, ikaskuntza gertatzeko beharrezko baldintzak diseinatuko dira: espazioaren eta denboraren egituraketa, erabili beharreko materialak, ingurune jakin horren ulerketa erraztuko duten gakoak edo tresnak, ikasle bakoitzari emango zaizkion laguntzak, ikaskuntzan bitarteko diren pertsonak, beste ikasleekiko elkarreraginak, etab.

Laburtuz, ingurune naturaletan ikaskuntzak programatzeko ondorengo urratsak jarraitzea proposatzen da:

1. Esanguratsuenak diren ingurune edo azpi-ingurune arruntak analizatu
2. Esanguratsuenak direlako programaturiko diren azpi-inguruneak aukeratu
3. Aipatu ingurunean egingo diren iharduerak eta beharrezko laguntzak programatu

Praktikan, programazio-eredu hau, Ikastetxearen Curriculum-Proiektuaren nahiz Gela Egonkorren Curriculum-Proiektuaren zati bat izango da eta ikasleen talde jakin horrentzako inguruneak iharduerak eta antolaketa diseinatuko dituen plangintzaren nahiz Gelaren Programazioaren lehen faseak jasoko ditu.

Aurreko eskema jarraituz, eta adibide gisa, ikaslearentzat esanguratsua den ingurune arrunt bateko curriculum-programazioaren proposamen bat aurkezten dugu.

Proposamena: Curriculum-programazioa ingurune naturaletan (Adibidea)

1. Ikasleen ikaskuntzarako esanguratsuenak diren ingurune eta azpi-ingurune arruntak analizatu

Hipotesi gisa, garatzeko aukera gehien eskaintzen duten eta esanguratsuenak diren testuinguru naturalak eta ohiko inguruneak ondorengoak direla pentsatuko dugu:

Gela	Ikastetxeko gelak	Kalea
<ul style="list-style-type: none">• Egunaren hasierako zona: denboraren egutegia, gaur egin behar duguna, etab.• Mahai-lana• Txokoa: jokorako, komunikaziorako, musikarako, etab.• Alfonbra-lana• Ohitura-zona: konketa, pertxa, etab.• Komunikazio-zona: mezuak, piktogramak, egutegia, argazkiak, etab.• Landareen, animalien eta abarren zona• Etab.	<ul style="list-style-type: none">• Jangela• Sukaldea• Atsedenerako patioa• Komunak: taza• Komunak: konketa, dutxa• Liburutegia• Psikomotrizitate-gela• Gimnasioa• Bideo-aretoa• Tailerra• Korridoreak• Bulegoak• etab.	<ul style="list-style-type: none">• Hurbileko ingurunea• Parke-lorategia• Igerilekua• Garraioa• Kafetegia• Supermerkatua• Zinea• etab.

2. Ikaslearen ikaskuntzarako eta ikastetxeak haietan lan egiteko eskaintzen dituen baldintza onen arabera esanguratsuenak izateagatik programatu diren azpi-inguruneak aukeratu.

Proposamena: JANGELA ingurunean ikaskuntzak programatzea aukeratu da, hau ikasleak erabili ohi duen testuinguru bat delako, bertan funtzionatzeko ikasi behar diren oinarrizko trebetasunengatik eta ikastetxeko ikasleekin elkarrekin izateko eskaintzen dituen aukera ugariengatik.

3. Ikasleak ingurune horretan moldatzeko **bertan garatu behar dituen iharduerak, trebetasunak eta abileziak** nahiz hari eman beharreko laguntza, espazioaren egokitzapena eta bertan erabiliko diren komunikazio-gakoak **programatu**. Ikastetxeko ikasle arrunten esku-hartzea, hau da, laguntzeko egin dezaketena, helduen bitartekaritza, zaintzaileena, etab. ere aurrikusi daiteke.

Proposamena: JANGELA ingurune programazioaren adibidea.

JANGELA: garatuko diren edukinak

1. Nortasun Pertsonala eta Gorputz Garapena.

- Gose-sentsazioaren eta asetasun-sentsazioaren identifikazioa.
- Usaimenaren eta dastamenaren garapena.
- Gorputzaren eta afektuen erritmoa jangelan ezarritako ohituretara egokitzea.
- Sentsazio hauek jangelako iharduerekin eta ordutegiarekin lotzea.
- Jangelako espazioaren barruan autonomiaz mugitzea.
- Jangela erabiltzeko beharrezkoa den gorputzaren koordinazioa eta kontrola eskuratzea.
- Jateko tresnak zuzen erabiltzea.
- "Jateko" esperientzia gertatzen den denbora eta lekua desberdintzea.
- Jangelako bizipenak, jateko ordua aurreratzea ahalbidetuko dioten gakoekin lotzea.

2. Autonomia Pertsonala eta Arazoen Konponketa

- Elikatze-ohiturak eskuratzea.
- Jateko tresnak funtzionalki erabiltzea: koilara, sardeska, ezpainzapia, mahai-zapia, etab.
- Jangela erabiltzeko jarraipideak eta arauak eskuratzea: erretiluan zerbitzatzea, ez altxatzea, etab.
- Elikatzeko oinarriko trebetasunak eskuratzea: mastekatzea, edalontzitik edatea, etab.
- Garbitasun-trebetasunak garatzea: eskuak garbitzea, lehortzea, hortzak garbitzea, etab.
- Ura, janaria, erretilua, etab. erabiltzeko trebetasunak garatzea.
- Norbere portaeraren erregulazioa: txanda itxarotea, mahaia jasotzea, sarrerak eta irteerak, etab.
- Elikadurarekin zerikusia duten trebetasunen garapena: ogitartekoa prestatzea, ogia moztea, etab.

3. Mundu Fisikoaren ezaguera

- Ikastetxeko gelak funtzionalki ezagutzea: jangela, sukaldea, komunak, etab.
- Gela hauetan mugitzeko beharrezko espazio-orientazioa eskuratzea.
- Jangelako materialen kokapena ezagutzea: platerak, erretiluak, edalontziak, etab.
- Jangela inguruko pertsonak identifikatzea: zaintzailea, sukaldaria, mahaiko ikasleak, etab.
- Seinaleak eta ikusmenezko gakoak kokatzen direneko lekuen identifikazioa.
- Jangelako arrisku-faktoreak ezagutzea; entxufeak, sua, tresna zorrotzak, etab.

4. Gizartearen ezaguera

- Jangelako espazioa bertan lan egiten duten pertsonekin lotzea.
- Jangelako testuinguruan agurtzeko keinuak edo hitzak erabiltzea.
- Eskatzeko, amaitu duela esateko, gustatzen ez zaiola esateko, etab. komunikazio-estrategiak garatzea.
- Giro-aldaketetara egokitzea eta portaera egokia garatzea.
- Besteekin jatea ahalbidetzen dioten jarraipide normalizatuak eskuratzea.

5. Komunikazioa eta Adierazpena

- Aurre-hartze eskemak sustatzeko jangelako ohiturak ziurtatzea.
- Sentimen-estimuluak (ikusmenezkoa, entzumenezkoak, etab.) jangelako iharduerarekin lotzea.
- Eskaerak, premiak, etab. adierazteko komunikazio-trebetasunak garatzea.
- Jangelako objektuei eta ekintzei dagozkien irudiak identifikatzea.
- Sinboloak, marrazkiak, piktogramak, etab. jangelako egoera jakinekin lotzea.
- Jangelako erabilgarritasun-argibide sinpleak ulertzea.
- Hitzeko edo keinu bidezko lengoaiaren bidez BAI eta EZ partikulak funtzionalki erabiltzea.
- Irudiak eta sinboloak, komunikatzeko, informatzeko edo gozatzeko gide gisa erabiltzea.
- Jangelan moldatzeko agenda grafikoak erabiltzea.

JANGELA: Jangela ingurunearen antolaketa

1. Jangelako zereginak analizatzea

- Ikastetxeko ikasleei jangelako egoeran eskatzen zaiena behatzea.
- Jangelan moldatzeko eskatzen diren gaitasunak.
- Ikasleari jangelako ingurunean behatzea.
- Besteekin elkarbanatu dezakeena analizatzea.
- Ikasleari eta taldeari bereziki irakatsi behar zaizkion gaitasunak analizatzea.

Adibidea:

- Erretilua, janaria autonomiaz hartzeko erabiltzea.
- 6 ikasleko mahaian leku finkoa elkarbanatzea.
- Autonomiaz jatea.
- Erretilua itzultzea.
- Txandaka, mahaia jarri eta garbitzea.

2. Elkarbanatutako iharduerak

- 6 ikasleko mahaian leku finkoa elkarbanatzea.
- Autonomiaz jatea.
- Jangelan autonomiaz mugitzea.
- Erretilua, laguntzarekin janaria hartzeko erabiltzea eta erretilua itzultzea.

3. Ikasleari bereziki irakatsi beharreko iharduerak

- Trebetasun jakinak erakustea: moztea, sardeskarekin sastatzea, etab.
- Marrazkia edo gakoa, burutu beharreko ekintzarekin edo objektuarekin identifikatzea.
- Erretilua erabiltzeko trebetasunetan trebatzea.
- Jangelan janaria hartzeko egin behar duen ibilbidea erakustea.
- Amaitu duela, gehiago nahi duela, tresnaren bat falta zaiola, etab. esateko komunikazio-trebetasunak erabiltzen trebatzea.

4. Ingurunearen antolaketa

- Erretiluen eta jateko tresnen lekua seinaleztatzea.
- Jangelako ibilbidea seinaleztatzea.
- Erabili behar duen mahaiaren argazkia edo marrazkia ematea.
- Beti leku bera erabiltzea. Jangelako ikasle-kopurua mugatua da.

5. Laguntzak

- Pertsona heldu baten edo/eta gaitasun gehiagoko beste ikasle baten laguntza pertsonala.
- Material egokituak: labainkadakontrako mahai-oihala.
- Jangelako ibilbidea jarraitzeko banakako agenda.
- Mahaiko agenda.

6. Iharduerak ikasle arruntekin

- Grafikoak, piktogramak eta agendak interpretatzeko eta erabiltzeko azalpena eta informazioa.
- Ikaslearengana zuzentzeko moduen azalpena: hitzen bidez, keinuen bidez, marrazkien bidez, etab.
- Bolondres gisa aurkezten diren ikasleekin, ikasle jakin bati jangelako zereginetan eman beharreko laguntza eta tutoretza antolatu eta informatzea.

Eraskina. Gela Egonkorren Curriculum-Proiektua lantzeko eredua

Gela Egonkorren Curriculum-Proiektua egiterakoan forma eta diseinu desberdinak erabil ditzakegu. Ondoren, aipatzen joan garen eta hurrengo lanketetan erreferentzia gisa har daitezkeen hezkuntza-printzipioak biltzen dituen eskema edo gida proposatzen dugu.

1. ERASKINA. Gela Egonkorren Curriculum-Proiektua: Erabakiak hartzeko gida.

Erabakiak hartzea

1. Aurretiko informazioa

- Ikasleen adina
- Nahastearen izaera
- HPB
- Gaitasunen ebaluazioa
- Iturri soziologikoa
- Etab.

2. Helburuen eta edukinen aukeraketa

- Adin kronologikoa
- Iturri psikologikoa eta epistemologikoa
- Ikaskuntza funtzionalak
- Ikaskuntza instrumentalak
- Trebetasun alternatiboak
- Etab.

3. Esperientzia-esparruak, ikaskuntza-inguruneak eta edukinak

4. Antolaketa-irizpideak

- Erabiliko diren ingurune naturalak
- Gelaren eta ikastetxearen antolaketa
- Espazioen eta denboren antolaketa
- Etab.

5. Metodologia-irizpideak

- Iturri pedagogikoa, psikologikoa.
- Komunikazio-trebetasunak.
- Desafio-jarrerak.
- Besteak.

6. Lan egingo den ikastetxeko ingurune naturalak

- Azpi-ingurune esanguratsuak analizatzea.
- Erabiliko diren inguruneak aukeratzea.
- Iharduerak programatzea eta ingurunea diseinatzea.

7. Koordinazio eta jarraipen-sistemak

- Ikaslearen jarraipena.
- Ikastetxean koordinazioa.
- Familiekiko koordinazioa.
- Kanpoko laguntza-zerbitzuekin.

V. GELAREN PROGRAMAZIOA LANTZEKO PROPOSAMENA

Gelaren programazioa, ikasle talde jakin batentzat eta denbora-espazio jakin baterako pentsatutako Gela Egonkorren Curriculum-Proiektuaren zehaztapena edo egokitzapena da. Gela egonkor batean arreta jaso ohi duten ikasleek bilakaera-une oso desberdinak izan ditzaketela eta beren hezkuntza-premiak amankomunak badira ere, lehentasun desberdinak izan ditzaketela kontuan izan behar dugu. Beraz, Gelaren Programazioak ikasle bakoitzarentzat programatzen diren iharduera bereziak jaso beharko ditu. Gela Egonkorren Programazioa bera, Curriculum-Egokitzapen oso Esanguratsua da eta, Banakako programa edo Curriculum-Egokitzapen Indibidual moduan, ikasle jakin bakoitzarentzat egindako egokitzapen eta iharduera jakinak jasotzen dituen esparrua da.

Gela egonkorreko ikasleak bertan denboraldi luzeetan egon daitezkeela eta gelako arduradunak beren ikaskuntzen ibilbidea jarrai dezakeela kontuan izanik, programazio edo denboralizazio hau denbora-ziklo luzeetan pentsatzen egin daiteke. Praktikan ikasturte bateko denboraldietarako programatu ohi da; hala ere, kasu hauetan ikaskuntza motela izaten denez, denbora gehiago eskatzen duten ikaskuntza batzuetarako denbora-dimentsioa kontuan izatera behartuta gaude. Zeregin hau errazagoa egiten da, denbora gehiago eskatzen duten ikaskuntzak jasotzen dituen Gela Egonkorren Curriculum-Proiektuaren erreferentzia badugu.


Gela egonkorren programazioak, hezkuntza-ihardueraren helburuak, ekintzak eta antolaketa modu zehatzagoan jasotzen ditu beraz. Bere lanketa, Gela Egonkorren Curriculum-Proiektua lantzeko aurrez definitu diren printzipio eta irizpide berdinetan oinarritzen denez, ez ditugu berriro ikusiko. Oinarrizko osagai batzuetatik abiatzen bagara, Gelaren programazioa era askotan gauzatu daitekeela garbi dago. Ondoren egiten dugun proposamenak aurrez Gela Egonkorren Curriculum-Proiektuarentzat azaldutakoaren antzeko eskema jarraitzen du, eta programazioaren oinarrizko elementuetan oinarrituz, Gela Egonkorren Programazioa egiteko erabil daitekeen eredu edo gida izan nahi du.

1. Gelaren programazioko elementuak

Gela Egonkorren Programazioa oinarrizko zenbait elementuk osatzen dute: hasierako ebaluazioa, helburuak eta edukinak eta, gelako lanerako plana izena duten hori osatzen duten aukera metodologikoak eta antolaketa-alderdiak. Elementu hauetako bakoitzari

dagokionez egiten diren egokitzapenek eta hartzen diren erabakiek ere lanketa-faseak markatzen dituzte, ondorengo eskema honetan laburtzen den bezala:

4. ESKEMA. Gela Egonkorraren Programazioko elementuak



2. Ebaluazioa.

Hezkuntza-prozesuan zehar egindako **ebaluazio**aren helburua, irakaskuntza ikasleen ezaugarrietara eta premietara egokitzen dela egiaztatzea da eta, ondorioz, bidezkoak diren hobekuntzarako egokitzapenak eta neurriak sartzeko balio du.

Gela Egonkorraren Programazioa, ikasle bakoitzari buruzko aurreko datuak bilduz aurreko hezkuntza-iharduera prozesuari eta emaitzei buruzko informazioa emango digun ebaluaziorako une batekin hasi behar da. Ebaluazioak, ikasle bakoitzak une horretan dituen premiak, lortu nahi ditugun helburuekin zerikusia duten aurretiazko gaitasunak, trebetasunak

eta ezaguerak, ikasle bakoitzarentzat premiazoenak diren ikaskuntzak, behar ahal izango dituzten laguntzak, etab. ezagutzea ahalbidetzen du. Informazio hau beharrezkoa da gelari egokitutako programa bat proposatzeko eta lana denbora jakin baterako egokiro planifikatzeko. Era berean, aurreko ebaluazio-irizpideak berrikusi nahiz egokitu edo beste berri batzuk ezarri behar dira, hezkuntza-premia larriak dituzten ikasleek polikiago ikasteaz gain, ikaskuntzak eskuratzeko denbora gehiago behar baitute; ebaluazio-irizpideak helburu edo edukin baten eskurapen osoan oinarritu ezin direnez, egokitu egin behar dituzte eraginkorragoak bihurtzeko. Adibidez: autonomiaz jatea, beste irizpide eraginkorrako batzuk barneratzen dituen irizpide zabala da: denbora batez eserita egotea, koilara erabiltzea, solidoak mastekatzen ikastea, etab.

Bestalde, Garapenaren Nahaste Orokortuak dituzten ikasleentzat nagusiki funtzionala izango den Curriculum bat egiteko aukerak (dokumentu honen inspirazio denak) ebaluazioa nola egin behar den ere adierazten digu. Esan den bezala, ohiko zereginen burutzapenak eta ingurunearen behaketak, ingurunean moldatzeko beharrezkoak diren gaitasunen behaketak, ikaslearen trebetasunen nahiz desadostasunen ebaluazioak eta, ondorioz, beharrezko laguntzen planifikazioak garrantzi handia hartzen du.

3. Helburuak eta edukinak.

Gelaren programazioko **helburuak eta edukinak**, ebaluazioak ematen digun informazioaren arabera aukeratzen dira, hasieran nahiz ikaskuntza-prozesuan zehar biltzen ditugun datuen bidez. Helburuak eta edukinak aukeratzeko erreferentzia, landutako Gela Egonkorren Curriculum-Proiektuak ematen digu, ikaskuntza-edukinak hautatzeko erabili diren printzipioak eta irizpideak baliozkoak direlarik (Ikus 35 or. 3. eskema).

4. Antolaketak elementuak.

Gelaren Programazioan kontuan izan beharko diren **antolaketa-elementuak** Curriculum-Proiektua lantzerakoan deskribatu diren alderdi bat baino gehiagorekin bat datoz. Gelako eta ikastetxeko espazioaren antolaketa, ikasleak taldeetan banatzea, geletan erabiliko diren laguntza- materialak, etab. hezkuntza-iharduera baldintzatzen dute, hezkuntza-xede batzuen lorpena erraztu edo eragozteraino.

- Gelako espazioaren antolaketari dagokionez, banakako eta taldeko lana egiteko espazioak edo zonak aurrikustea, gelaren barruan iharduera jakin batzuetan lan egiteko espazioak edo txokoak banatzea, iharduerak garatzeko lekuak behar bezala adieraztea, etab. komeni da (ikus 53. or.).

- Ikaslearen autonomiarako ikaskuntzak bereziki landu behar dituzten ikastetxeko inguruneak ere programatu behar dira eta ikastetxeko espazio jakin batzuetan (adibidez tailerretan, jangelan, etab.) iharduera bera elkarbanatzen duten talde bat baino gehiago lanean bat etor daitezkeela kontuan izan behar da (ikus 53-55 or.).

- Kontuan izan beharreko beste alderdi bat ikasleak taldeetan banatzeari dagokiona da; ikasle bakoitzaren premien eta aurrikitako iharduera-programaren arabera, banakako programazioaren edo Curriculum-Egokitzapen Indibidualaren alderdi jakin batzuk erakustera zuzendutako taldeko edo banakako arreta eman beharko baitzaio.

- Baliabide didaktikoen eta materialen aukeraketa aurrez aipatu diren irizpideak jarraituz egin beharko da: adin kronologikoari egokituta egotea, erraz ezagutzeko modukoa izatea, erabilgarria izatea, eskatzen zaien iharduerari buruzko informazioa ematea, gelan aurrez seinalezaturiko kokagunea izatea, irmotasuna eta koherentzia erabiltzea, etab.

- Iharduerak ihardunean zehar banatzeko modua, ingurune fisikoaren eta sozialaren ulerketa errazteko eta espazioari nahiz denborari buruzko nozioak eskuratzen laguntzeko alderdi garrantzitsua da. Denbora eta iharduera egituratzek, ohitura batzuk jarraitzen dituen ordutegi bat finkatzek, etab. gertakariak aurrakusten eta haietan eskatuko zaiena jakiten lagunduko die ikasleei.

Ondoren, Gela Egonkorrean egin ahal izango diren iharduera posibleak eta hauen ordutegia iradokitzen duen proposamen bat aurkezten dugu.

Proposamena: Gela Egonkorreko eguneroko ihardueren banaketa eta ordutegia

Iharduera	Landuko diren alderdiak	Ordutegia
• Sarrera	Gizarte-ohiturak, autonomia, janzkera, isekitzailea, lamina, marrazkiak, etab.	
• Zein egun da gaur?	Data, denboraren egutegia, marrazkien interpretazioa eta laminak, etab.	
• Zer egingo dugu gaur?	Eguneko iharduerak, agendak, piktogramak, etab.	
• Zer jango dugu gaur?	Irudien, irudi-liburuen, piktogramen eta abarren interpretazioa.	
• Banakako mahai-lana	Kontzeptu berriak, zentraketa-iharduerak, grafikazko eta mugimenduzko iharduerak, iharduera numerikoak, manipulazio-iharduerak, etab.	
• Bainugela	Higiene-ohiturak, autonomia, esfinterren kontrola, komunikazio-gaitasunak, etab.	
• Patioa	Aire libreko jokoak, txirrista, soka, baloia, etab.	
• Taldeko-lana	Katea-lana, elkarriketa, joko simulatua, ikusmen bidezko kodeak, hitzezko gaitasunak, etab.	
• Jangela	Gizarte-trebetasunak, autonomia, elikadura, piktogramen interpretazioa, kartelak, etab.	
• Ohiturak	Autozaintza, konketa, bainugela, garbitasuna, etab.	
• Atsedena	Atsedenerako espazioa, koltxoneta, jokoa, etab.	
• Beste batzuekin jokoan	Gizarte-trebetasunak, erosketak egitera jolastu, jatera jolastu, etxea, sukaldea, etab.	
• Abesten	Abesteko espazioa, musika-jostailuak, psikomotrizitatea, etab.	
• Gelatik kanpo	Ingurune naturaleko lana: denda, parkea, etab.	
• Zer egin dugu gaur?	Egutegia, piktograma, agenda, komunikazioa, etab.	
• Norekin egon gara?	Argazkiak, piktogramak, etab. ezagutzea.	
• Non egon gara?	Argazkiak, marrazkiak, etab. ezagutzea.	
• Irteera	Autozaintza eta higiene-ohiturak, hitzezko gaitasunak, gizarte-trebetasunak, etab.	

Eskola-ihardunean zehar, ihardueren artean, hauek aldatzen edo amaitzen direnean, lekua aldatzen denean, etab. trantsizio-denborak daudela kontuan izan behar da. Hauetan, ikasleek egin behar dutena ez dute oso argi izaten. Ikasle batzuegan egoera hauek

desorientazioa eta desegonkortasun pertsonala gehitu dezakete. Egoera hauek aurrikustea komeni da, ikasleari gertatuko denari buruzko informazio ulerkorra eta egokia emanez, gelan, alfonbra, mugikorrak, musika, etab. bezalako material egokiz hornituta egongo den eta behar bezala identifikatu ahal izango den egoera hauetan erabiltzeko espazio bat behar bezala egituratuz eta une hauetan behar dezakeen laguntza pertsonala emanez.

5. Curriculum-Egokitzapen Indibiduala.

Ikaslearen **Curriculum-Egokitzapen Indibiduala edo Banakako Programa**. Gela Egonkorren Curriculum-Proiektuak nahiz Gelaren Programazioak, oso egokitzapen garrantzitsu bihurtuko dituzten neurriak hartzen dituzte zehazteko, hauen xede diren ikasleek, asko egokitutako Curriculumak eragiten dituzten lan-proposamenak eskatzen baitituzte.

- Aurrez egindako zehaztapenez gain, ikasleak heterogenoak direnez eta haien hezkuntza-premiak oso modu desberdinetan azaltzen direnez, haien bilakaera pertsonala eta banakakoa izaten da eta Curriculum-Proiektuan nahiz Gelaren Programazioan oinarritutako programen arabera landutako Banakako Programa edo Curriculum-Egokitzapen Indibiduala beharrezkoa egiten da.

- Curriculum-Egokitzapenaren edo Banakako Programa honen osagai gehienak (helburuak, edukinak, etab.) Gelaren Programan barneratuta daude, hau gelako ikasle-talde honentzat egin beharreko egokitzapen indibidualak integratuz egiten baita. Banakako diferentzietara sentikorragoak diren beste batzuk aldatzea normalagoa da: metodologia egokiagoa, ikasle batek ikasteko behar dituen laguntza-motak, behar duen laguntzaren edo gainbegiraketaren maiztasuna eta intentsitatea, interesak eta motibazioak, helburu bat lortzeko denbora, gomendagarria den gainbegiraketaren eta jarraipenaren maiztasuna, igaro ditzakeen egoera-mediko, farmakologiko, etab. bereziak, etab.

- CEIak edo Banakako Programak lantzeko prozesua, prozesu arruntaren antzekoa da neurri batean: hala ere, prozesuaren zati handi bat ikasle hauen egoera berezira egokitu behar da, batez ere alderdi hauei dagokienez:

- Banakako Programa edo CEI lantzeko erreferentzia Gela Egonkorren Programazioa da.
- CEIaren edo Banakako Programaren erregistroa, norbanakoarentzat esanguratsuenak izan daitezkeen alderdiak, jarraipen-mota, jokabideen analisia eta ebaluazioa, etab. zabaltzeko egokitu daiteke.

- Seguruenik, Banakako Programarren edo CEIaren onespena da alda daitekeen beste alderdietako bat, gela egonkor batean matrikulatuta egoteak eta bertan arreta jasotzeak zentzu honetan aldaketa batzuk sartu baititzake.

Ondorengo eraskinean, programazioaren oinarriko elementuak laburtzen dituen proposamen bat azaltzen dugu, Gela Egonkorren Programazioa lantzerakoan gida gisa erabil daitekeena.

2. Eraskina. Gela Egonkorren programazioa: Erabakiak hartzeko gida

1. Aurretiko informazioa	Gelako erabakiak hartzea	Egokitzapen individualenak
<p><i>Gelaren eta ikasleen hasierako ebaluazioa</i></p> <ul style="list-style-type: none">• Gelaren ezaugarriak• Ikasleen ezaugarriak• Adina• Ikasleen aurreko eskolaketari buruzko datuak• Aurreko banakako programak• Erabilitako baliabideak eta laguntzak• Ikasleen hezkuntza-premiak• Ikasle bakoitzak arlo desbedinetan dituen egungo gaitasunak• Esku-hartze bereziak: arreta medikoa, asistentziala, medikazioa, etab.• Gelako arduradunak: laguntzailea, tutorea, bestelakoak, etab.• Programaren denboralizazioa• Besteak, etab.	<p><i>Gela Egonkorren lana garatzeko erabakiak.</i></p>	<p><i>Ikaslearen Programan banaka kontuan izan beharreko alderdiak.</i></p>

2. Helburuak. Edukinak. Metodologia	Gelako erabakiak hartzea	Egokitzapen indibidualak
<p><i>Ikaskuntzaren helburuak eta edukinak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Gelaren helburuak. • Garatu beharreko esparruak. • Esparruetako edukinak (41-51 or.). • Ebaluazio-irizpideak. • Ikasleekin lan egiteko ikastetxeko ingurune naturalak. • Aukeratutako ingurune arrunten diseinua (53-55 or.). • Ingurune bakoitzean landuko diren edukinak. • Ingurune bakoitzeko material eta baliabide didaktikoak. • Egokitzapen Indibidualak. • Programazioaren denboralizazioa. • Besteak, etab. <p><i>Alderdi metodologikoak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Esparru desberdinak garatzeko: Komunikazioa, ingurune fisikoaren eta sozialaren ulerketa, autonomia, etab. • Desafio-jokabideen aurrean aukerak. • Lan egiteko ingurune naturalak. • Gelako giroaren diseinua. • Ikastetxeko giroaren diseinua: korridoreak, bulegoak, beste gela batzuk, etab. • Ikasle jakin batentzako metodologia berezia. • Bestelakoak, etab. <p><i>Ikasleen iharduerak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Iharduera-mota. • Eguneroko iharduerak: oinarrizko programa (61. or.). • Asteroko iharduerak: bideoa, sukaldea, igerilekua, etab. • Hileroko iharduerak: parkera irtenaldiak, kafetegia, etab. • Iharduera bereziak: ibilaldiak, koloniak, etab. • Ikastetxe osoan amankomunak diren iharduerak: ihauteriak, olentzero, etab. • Ikastetxeko beste ikasle batzuek parte hartzeko iharduerak: tutoretza, jangelan languntzea, etab. • Iharduera hauetan parte hartzen duten ikasleen funtzioak eta zereginak. • Ikasle jakin batentzako egokitzapen bereziak. • Besteak, etab. 	<p><i>Gela Egonkorren lana garatzeko erabakiak.</i></p>	<p><i>Ikaslearen Programan banaka kontuan izan beharreko alderdiak.</i></p>

3. Antolaketa-elementuak	Gelako erabakiak hartzea	Egokitzapen indibidualak
<p>Materialak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Komunikazio-lanetarako baliabide didaktikoak: gakoak, piktogramak, argazkiak, etab. • Laguntza teknikoak eta informatikoak. • Gela diseinatu eta egituratzeko materialak: grafikoak, agendak, etab. • Ikastetxeko espazioa diseinatzeko materialak eta baliabideak. • Ikasle jakin batzuekin erabiltzeko material bereziak. • Besteak. <p>Denboraren antolaketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ordu-tegiak eta egutegia. • Taldeko ihardueren ordutegia (61. or.). • Banakako arreta emateko ordutegia. • Ikasle jakin batentzako ordutegi berezia. • Iharduera-egutegia. • Tutorearen edo laguntzailearen dedikazioa. • Ikastetxeko ikasleekin ihardueretan parte hartzeko ordutegia. • Ebaluazioa egiteko denbora. • Besteak. <p>Espazioaren antolaketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gelan lanerako zonak banatzea. • Ikastetxean lan egiteko zonak banatzea. • Atsedenerako, jolasteko, esfinterrak kontrolatzeko, etab. espazioak mugatzea. • Gainerako ikasleekin elkarbanatuko diren espazioak. • Espazioa girotzeko materialak. • Koordinatzeko eta jarraipena egiteko bilertarako espazioak. • Besteak. <p>Ebaluazioa. Jarraipena. Koordinazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen jarraipenerako saioak. • Ikastetxeko irakasleekin koordinatzeko bilerak. • Irakasleen antolaketa. • TMPekin saioak. • Gelaren Programaren ebaluazioa. • Banakako Programazioen edo CElen ebaluazioa. • Ikasleak ebaluatzeko denborak. • Familiekin bilerak. • Hezkuntzaz kanpoko zerbitzuekin bilerak. • PAT zonan koordinatzeko bilerak. • Besteak. 	<p><i>Gela Egonkorren lana garatzeko erabakiak.</i></p>	<p><i>Ikaslearen Programan banaka kontuan izan beharreko alderdiak.</i></p>

VI. PROFESIONALEN KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA

Ikastetxearen Curriculum-Proiektuak, beste batzuen artean, hezkuntza-ihardueran esku hartzen duten profesionalen erantzun koordinatua ziurtatzeko burutu beharreko iharduera-multzoa jasotzeko helburua du. Zentzu honetan, Gela Egonkorrari buruzko iharduera bereziak ere hauetan barneratu behar dira.

Ikasleen hezkuntza-premia larriek eta beren gerapenaren berezitasunek, hezkuntzaren esku-hartze oso indibidualizatuak eskatzen dituzte; sarritan behar dituzten laguntzei, ikasle bakoitzak ikasteko baldintza egokienei, ikastetxearen dispozioari eta abarri buruzko erabakiak hartzen joan behar dira. Ikasle bakoitzaren bilakaeraren gainbegiraketa eta jarraipena, familiak nahiz ikastetxetik kanpoko beste profesional batzuek egindakoa, beharrezkoak dira irakaskuntza bere bilakaera-uneari egokitzeko eta bidezkoak diren Curriculum-Egokitzapenak egiteko.

Bestalde, gelan bi profesionalak esku hartzen dutenez (laguntzaileak eta tutoreak) eta ikastetxe arrunt batean integratuta dagoenez, gela egonkorrean nolabaiteko eragina duten ikastetxeko profesionalen arteko koordinazioa areagotu behar da, ingurune arruntak ikasleari eskaintzen dizkion hazkuntza pertsonalerako aukerak ahalik eta gehien errentabilizatzeko.

Minusbaliotasun larriak dituzten ikasleekiko hezkuntza-zereginak irakaslearentzat nolabaiteko zailtasunak ekar ditzakeela eta hauek gainditzeko modu bakarra, egiten den lana elkartrukatu eta alderatzea ahalbidetzen duen eta praktikan sortzen diren zailtasunei buruzko aholkuak jasotzeko aukera ematen duen beste profesionallekiko koordinazioa izatea dela ere ezin dugu ahaztu.

Lan hau ez da irakaslanetik kanpo ulertu behar, alderantziz baizik; Ikastetxearen Curriculum-Proiektuak, Gela Egonkorraren premien arabera, Gela Egonkorrari dagokionez planteatzen diren jarraipen, koordinazio eta aholkularitza-iharduerak adierazi eta horretarako denborak eta espazioak egituratuko ditu.

Ondorengo koordinazio eta jarraipen-espazioak aurrikusi eta egituratzea komeni dela esan dezakegu:

1. FAMILIAREKIKO LANKIDETZA

Familiekiko lankidetzak eta koordinazioa, beti beharrezkoa bada ere, garrantzi handia hartzen du hezkuntza-premia bereziak daudenean, familientzat nahiz irakasleentzat kezkatzeko arrazoiak sarritan ematen baitira: jokabide-nahasteak, gaixotasun kronikoak, eskola-ingurunera egokitu beharra, autozaintzarako oinarriko ohiturarik ez izatea, beren seme-alabaren bilakaerari buruzko kezka, etab. Ikaskuntza funtzionalenak eta esanguratsuenak aukeratzeak duen garrantziaz ohartu eta horren arabera jokatzeko, familiarekiko lankidetzak ikaskuntzari dagokionez dituen lehentasunak ezagutu eta haiekin, helburuak nahiz irakatsi nahi ditugun trebetasunak eta abileziak **“ituntzeko”** balio behar du, hauek ikaslearentzat eta familia-ingurunearentzat garrantzitsuenak izan daitezzen. Era berean, proposatutako helburuak, trebetasunak eta abileziak lortzeari dagokionez ikasleak egin dituen aurrerapenak familiarekin ezagutu eta alderatzea beharrezkoa izango da.

Bestalde, planteatutako ikaskuntza askok autonomia pertsonalarekin, independentziarekin eta autozaintzarekin zerikusia dute eta hauen burutzapen eta praktika-esparrua eskola baino zabalagoa da, familia-ingurunean edo familiak kontrolatzen dituen eskolaz kanpoko beste ingurune batzuetan ere burutzen baitira. Honek ez du esan nahi hauek familiaren erantzukizunpean bakarrik dauden zereginak direnik edo ikasleak ingurune horretan bakarrik burutu behar dituenik. Bi inguruneen lankidetzarekin eta biak bat etorritz eskuratzen eta sendotzen diren ikaskuntzak direla esan nahi du: autozaintzarako trebetasunak eta abileziak hezkuntza-ingurunean eskuratu ondoren familian orokorki aplikatu eta funtzional bihurtu daitezke, eta alderantziz, familia-ingurunean ikasitako oinarriko trebetasun batzuk eskola-ingurunean orokortu daitezke.

Familiekiko lankidetzak-esparruak proposatzen diren neurrian, gurasoek beren seme-alaben arazoak hobeto ulertuko dituzte eta profesionalek, haiek guraso gisa dituzten kezkek hobeto ulertuko dituzte, hezkuntza-arazo jakinen aurrean konponbideak bilatzea errazagoa eginez.

2. GELA EGONKORREKO PERTSONA LAGUNTZAILEA

Gela egonkorreko tutorea, gelako ikasleen hezkuntzan parte hartzen duen irudi nagusia da. Bere erantzukizunak dira ikasle bakoitzaren egoera pertsonala nahiz bere premiak ezagutzea, bere bilakaera jarraitzea, bidezko Curriculum-Egokitzapenak egitea, metodologia egokienak aukeratzea, etab.

Gela Egonkorreko pertsona laguntzaileak gelako arduradunarekin harreman oso estua du, ikasleen hezkuntzan eta haien planifikatzen diren ikaskuntza-zereginetan laguntza garrantzitsuenetako bat baita. Ikasleentzat garrantzi handia duen pertsona da eta, erantzukizuna duen tutoreak bezala, planteatzen diren ikaskuntza-egoera desberdin askotan bitarteko gisa iharduten du. Ikasleen edo gelaren curriculum antolatzea pertsona laguntzailearen erantzukizuna ez bada ere, hezkuntza-iharduera bere lankidetzarekin eta partaidetzarekin diseinatzeak bere garrantzia du. Bere partaidetza bultzatzea, bere esperientzia eta informazioa ikaslearen jarraipen-zereginetan nahiz planifikazioan kontuan izatea, berak zein zereginetan parte hartu behar duen erabakitzea eta gelaren eta hezkuntzako esku-hartzearen alderdiak koordinatzeko denbora erreserbatzea tutorearen erantzukizunak dira.

3. IKASTETXEKO IRAKASLEAK

Ikastetxeko irakasle arruntek, aniztasunaren trataeraren barnean Gela Egonkorreko ikasleentzat proposatzen diren helburuetan eragina dute. Kasu batzuetan ikasle guztiak ihardueraren bat elkarrekin burutuko dutelako edo une jakin batean besteekin parte hartu dezaketelako, koordinazio-bideak finkatzea beharrezkoa izango da. Ikastetxeko laguntza-irakasleak hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta eta orokorrean aholkua emateko gaitasun eta prestakuntza berezia duten pertsonak nahiz laguntza-gelako irakasleak izaten dira eta gela egonkorrari dagokionez oso erabilgarriak izan daitezkeen zereginak garatzen dituzte. Zeregin hauek (ondoren hauetako batzuk aipatzen dira) erabakiak hartzean eta akordioen bilaketan oinarritzen dira. Horretarako, ikastetxeko ihardueraren barruan denbora batzuk egituratu behar dira. Koordinaziorako denborak Gela Egonkorraren Curriculum-Proiektuan nahiz Ikastetxearen Proiektuan eta honen Urteko Planean jaso beharko dira. Lankidetzaren zeregin hauetako batzuk ondoren aipatzen diren hauek dira:

- Aniztasunari erantzuteko erabakiak hartzea, zehazki Garapenaren Nahaste Orokortuak dituzten ikasleei arreta emateko moduari buruzko erabakiak, Hezkuntza-Proiektua eta Ikastetxearen Curriculum-Proiektua lantzeko.
- Ikastetxearen ingurune arrunteko espazioen egokitzapenean eta diseinuan parte hartzea, HPBak dituzten ikasleei hauen erabilpena errazteko.
- Lanketa bateratua eta Gela Egonkorrerako Curriculum-Proiektuak, Gelaren Programazioa eta Curriculum-Egokitzapenak egiterakoan aholkularitza.
- Gela egonkorreko irakasleek izan ditzaketen zailtasun jakin batzuen konponbide bateratua: jokabide-arazoak, komunikazio-arazoak, etab.

4. PAT ETA TMP

Laguntza-zerbitzuen eta zehazki dagokion zonaren PATeko Talde Multiprofesionalen funtzio berezia irakasleei aholkua ematea eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen jarraipena egitea da. Zentzu honetan, Garapenaren Nahaste Orokortuak dituzten ikasleei arreta ematen dien Gela Egonkorren ikuspegitik, orientazio, aholkularitza eta koordinazio-zereginak burutzeko behar den denbora aurrakusi eta programatzea beharrezkoa da. Ekintza hauek TMPko teknikari baten partaidetzarekin burutzen dira, orokorrean ikastetxearen ardura duen teknikaria edo/eta Garapenaren Nahaste Orokortuen Programaz arduratzen den teknikaria.

Gara daitezkeen ekintzen artean ondorengoak aipatzen ditugu :

- Ikaslearen jarraipena egiteko aldizkako bilerak.
- Ikaslearen eta gela egonkorren hasierako ebaluaziorako bilerak.
- Gela Egonkorren Curriculum-Proiektuari, programazioari, antolaketari eta abarri buruzko aholkuak emateko bilerak.
- Alderdi jakin batzuk lantzeko metodologia egokienari buruzko aholkuak: komunikazioa, ingurunearen ulerketa, ikastetxeko ingurune arrunten erabilera, hauen diseinua, etab.
- Zona bereko edo zona mugakideetako gela egonkorretako beste profesionalekin TMPak antolatutako koordinazio-bilerak, topaketak edo mintegiak, gela egonkorren antolaketari, metodologiari, materialen lanketari eta abarri buruzko alderdi orokorrak aztertzeko.

5. ZERBITZU MEDIKOAK ETA ASISTENTZIALAK

GNOak dituzten ikasleek sarritan hezkuntzarekin zerikusi gehiegi ez duten zerbitzuen arreta jasotzen dute. Ikasle hauen eta beren familien premiak ez dira hezkuntzaren esparrura mugatzen; medikuekin, gizartearekin, aisialdiaren antolaketarekin eta abarrekin zerikusia duten premiak ere badituzte eta hauek beste laguntza-zerbitzu batzuen erabiltzaile bihurtzen dituzte. Minusbaliotasun larriak dituzten ikasleen eta beren familien inguruan mota desberdinetako zerbitzuak bat etorri ohi dira: hezkuntza-zerbitzuak, gizarte-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak, etab. Beharrezkoa da beraz komunikazio-bideak ezartzea, beharrezko informazioa izatea eta hezkuntza-alderdiak ikaslearentzat eta bere familiarentzat une jakin batean lehentasuna izan dezaketean beste premia batzuekin koordinatzea. Orokorrean, koordinazio-ekintza hauetan

laguntza-zerbitzuek eta zehazki TMPren arduradun den pertsonak aktiboki parte hartu ohi dute. Baina gelako irakasleek ere partaidetza garrantzitsua dute ikaskuntza, sor daitezkeen premia puntualetara egokitu ahal izateko.

Hezkuntzaz kanpoko zerbitzuekiko koordinazioan ondorengoekin harremanak finkatzea komeni da:

- Ikasle bati noizbehinka arreta eman diezaioketen hezkuntza-zerbitzuak: Itxuen Baliabide-zentroak, ospitaletako gelak, etab.
- Zerbitzu medikoak eta gizarte-zerbitzuak
- Aisialdi eta astialdi arretarako zerbitzuak
- Minusbalotasun desberdinengatik bildutako gurasoen elkarteak (Gorabide, Apnabi, Gautena, etab.) familia-orientazioko zerbitzuak, asistentzia medikoa, aisialdirako arreta, etab. ematen dutenak.

Proposamena: Gela Egonkorren koordinazio-ihardueren erregistroa (Adibidea)

Koordinazio-ekintzak	Zereginak	Parte-hartzaileak	Denboralizazioa
<ul style="list-style-type: none">• Ikasleen jarraipena• Familiekiko koordinazioa• Laguntzailearekiko koordinazioa• Laguntza-irak./ikastetxearekin• TMP/PATekin koordinazioa• Beste zerbitzu batzuekin• Zonako Mintegiak/Topaketak	<ul style="list-style-type: none">• Banakako Programa ebaluatzea.• Bilakaera ezagutzea.• Jokabide-arazoa konpontzea.• Iharduera-mota erabakitzea.• Beharrezko laguntzak erabakitzea.• Besteak.	<ul style="list-style-type: none">• Gela Egonkorreko Tutorea• LaguntzaileaAldiska: Aholkularia, TMP, Familia.	<ul style="list-style-type: none">• Hiruhilekoa• Puntualak: zailtasun zehatzak tratatzeko.

VII. IKASTETXE ARRUNTA: GELA EGONKORRA IKASTETXEAN BARNERATZEKO IHARDUERAK

Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuak, beste batzuen artean, ikasleen aniztasunaren trataerari dagokionez ikastetxeak planteatzen dituen asmo eta helburu orokorrak jasotzen ditu. Ikastetxe arrunt batean, dituzten hezkuntza-premia larrien ondorioz Gela Egonkorretan arreta jasotzen duten ikasleak badaude, Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuan gela honetan arreta jasotzen duten ikasleekiko nahiz ikastetxeko gainerako ikasleekiko hezkuntza-asmoak jaso behar dira. Erabaki hauek guztiek isla zehatzagoa izango dute Ikastetxearen Curriculum-Proiektuan eta Ikastetxearen Urteko Planean.

Aniztasunaz hitz egiten dugunean, ez ditugu hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei zuzendutako erabakiak bakarrik aipatzen, baita ikastetxeko ikasle arruntenak ere. Hauentzat, minusbaliotasun larriak dituzten ikasleak ulertu eta haiengana hurbiltzeko nahiz haiengan integrazio- jarrera positiboak sustatzeko iharduerak eta helburuak planteatuko dira.

Gizarteraketa egi bihurtzea nahi bada, orokorrean gela osoa eta bereziki Garapenaren Nahaste Orokortuak dituzten ikasleak ikastetxeko eguneroko bizitzan eta ihardueran barneratzen laguntzeko asmoa duten erabaki batzuk hartzera behartuta egongo da ikastetxea.

Ondorioz, GNOak dituzten ikasleentzako gela egonkorra duen ikastetxe arruntak, Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuan eta Ikastetxearen Curriculum-Proiektuan jasotzen diren ikasleen arretari eta aniztasunari buruzko erabaki batzuk hartu beharko ditu. Aipatu den azken dokumentuan helburu hauek lortzeko iharduerak aipatuko dira.

Erabaki hauek ondorengo funtsezko hiru alderdi hauei buruzkoak izango dira:


- 1. Ikastetxeko elementu pertsonalak:** ikasleen irakasleak eta tutoreak, laguntza-irakasleak, zaintzaileak, laguntzaileak, hauen dedikazioa, etab.
- 2. Ikastetxearen elementu materialak eta haien antolaketa.** Ikastetxeko altzarien erabilerari, espazioen banaketari eta ikasleen artean elkarbanatzeko moduari buruzko erabakiak barneratzen ditu. Hauen artean aipagarriak dira:
 - Ikastetxearen altzariak eta ekipamendua nahiz haien egokitzapena.
 - Ikastetxeko espazio amankomunen diseinua: jangela, patioa, komunak, korridoreak etab., haien erabilera errazteko.
 - Espazio amankomunen antolaketa: banaketa, erabilpena, sartzeko baldintzak, argitasuna, etab.

- Ikastetxeko ikasleek egingo duten espazioaren erabilpena.
- Ikastetxeko espazio amankomunetan erabiliko diren baliabide didaktiko sinpleen aukeraketa eta lanketa, ulergarriak izan daitezen eta bertan Gela Egonkorreko ikasleak nahiz orokorrean ikastetxekoak ongi molda daitezen.
- Denboraren antolaketa: elkarbanatutako iharduerak burutzeko ordutegien banaketa, gelako ikasleek bereziki erabiliko dituzten lekuen banaketa, zeregin berezien burutzapena, espazio amankomunak erabiltzeko ordutegia, etab.

3 Ikasle arrunten iharduerak. Pertsona desberdinen eta kasu honetan hezkuntza-premia berezi desberdinak dituztenen ezagutza eta ulerketa ahalbidetzeko nahiz pertsona desberdinen integrazioa eta haiekiko tolerantzia jarrera positiboak garatzeko helburua duten curriculumaren arloei lotutako ekintzak eta iharduerak burutzea planteatu daiteke. Ondorengo iharduerak iradokitzen ditugu:

- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen integrazioaren aldeko jarrera positiboak sustatuko dituen informazioa barneratzen duten tutoretza-iharduerak.
- Ikasleari pertsona desberdinen premiei buruzko informazioa emango dioten iharduerak.
- Zeregin oso jakin batzuetan, jangelan, jolasgaraian, autobusean, etab. gaitasun gutxiagoko ikasle baten tutore gisa bere lankidetzara ematea ahalbidetuko dioten ikasleen alderantzizko integrazioarako programak.
- Minusbalotasun desberdinei eta bereziki ikastetxeko ikasleek dituztenei buruzko informazioa ematen duten bideoak edo ekitaldiak.
- Minusbalotasunak dituzten anaien edo beste senide batzuen esperientziak trukatzeko edo kontatzeko iharduerak.
- Minusbalotasunak dituzten pertsonen ezagutzara hurbiltzen duten kartelak, lanak, etab. burutzea.

5. ESKEMA: Ikastetxearen eta Gela Egonkorren Curriculum-Proiektua



HELBURUAK
Ikastetxeko ikasleak

↓

IHARDUERAK

- * *ikastetxeko ikasleei HP bereziei buruzko informazioa ematea*
- * *gaitasun gehieneko ikasleek tutoretza-ihardueretan parte hartzea*
- * *elkarbanatutako iharduerak*
- * *elkarbanatutako espazioak*
- * *komunikazio-forma desberdinei buruzko hastapenak ematea*
- * *Minusbaliatutako anaiak edo senideak dituzten ikasleen arteko esperientzien trukaketa*
- * *HPBak dituzten pertsonei buruzko lanak burutzea*
- * *ikastetxeko ikasleek piktogramak eta ikusmeneko beste gako batzuk erabiltzen jakitea*

ERANSKINAK

1 *Ingurune desberdinetan erabil daitezkeen ikusizko seinaleak eta sinboloak*

A. Ikasgela ingurunea

B. Jangela ingurunea

C. Ikastetxe ingurunea

D. Kale ingurunea

E. Komuna ingurunea

2. *Ingurune fisikoa eta soziala ulertzeko eta komunikatzeko ikusizko laguntzen eta gakoen adibideak.*

a. Iharduera-egutegia










b. Agenda eta iharduera-liburuak

c. Ihardueretarako txartelak








d. Zereginen banakako txartela

e. Hitzak egin beharreko zereginekin





**1 INGURUNE DESBERDINETAN ERABIL DAITEZKEEN IKUSIZKO
SEINALEAK ETA SINBOLOAK
A. IKASGELA INGURUNEA SEINALEAK ETA SINBOLOAK**











B. JANGELA INGURUNEA SEINALEAK ETA SINBOLOAK




C. IKASTETXE INGURUNEA SEINALEAK ETA SINBOLOAK



D. KALE INGURUNEA SEINALEAK ETA SINBOLOAK




E. KOMUNA INGURUNEA SEINALEAK ETA SINBOLOAK




2. INGURUNE FISIKOA ETA SOZIALA ULERTZEKO ETA KOMUNIKATZEKO IKUSIZKO LAGUNTZEN ETA GAKOEN ADIBIDEAK.

a. Iharduera-egutegia: Egunerako ekintzak.




b. Agenda eta iharduera-Liburuak: Irabaki bat prestatu.




c. Ihardueretarako txartelak




d. Zereginen banakako txartela.



e. Hitzak egin beharreko zereginekin



recortar



piscina



comprar

BIBLIOGRAFIA

- BRONFENBRENNER, U. 1987. *La ecología del desarrollo humano*. Paidós. Bartzelona.
- FEJERMAN, N. 1994. *Autismo infantil y otros trastornos del desarrollo*. Paidós. B. Aires.
- GARANTO ALÓS. 1993. *Trastornos de conducta en la infancia*. Bartzelona. Universitas-54.
- Informe para una escuela comprensiva e integradora*. 1988. Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza. Vitoria-Gasteiz.
- MARCHENA GONZÁLEZ, C. 1992. *El trastorno autista. Contextualización e intervención logopédica*. ALFAR. Sevilla.
- MAURI, T. 1993. *Los contenidos escolares*. Aula de Innovación Educativa, 11. Graó. Bartzelona.
- PEETERS, T. 1990. *De l'Adolescence à l'age adulte*. EDINOVATION. Le Cannet. France.
- PUIGDELIVOLL, I. 1993. *Programación de aula y adecuación curricular*. GRAO. Bartzelona.
- R. JORDAN & S. POWELL. 1995. *Understanding and teaching children with Autism*. England. J.Wiley.
- SAINZ, ALICIA, koord. 1996. *El autismo en la edad infantil. Los problemas de la comunicación*. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.
- SOTILLO, M. 1993. *Sistemas alternativos de Comunicación*. Ed. TROTTA. Madril.
- SCHAEFFER, B. 1993. *La mejora de la enseñanza del lenguaje para niños autistas*.
" Actas del VII congreso Nacional de Autismo" . Amarú. Salamanca.
- TAMARIT, J. 1995,. *Conductas desafiantes y autismo: un análisis contextualizado*.
" Trastornos Profundos del Desarrollo" . ASPANRI. Sevilla.
- V.V.A.A. 1994. *Curriculo Carolina: Evaluación y ejercicios para bebés y niños pequeños con necesidades especiales*. Madril. TEA argitaraldiak.
- V.V.A.A. 1992. *Mental Retardation*. American Association on Mental Retardation. Washington.
- VV.AA: 1992 *Autismo y necesidades educativas especiales*. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.
- VV.AA. 1992. *Retraso mental severo y profundo y necesidades educativas especiales*. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.